

ttipi ttapa

2003ko maiatzaren 8a • XXIII. urtea



J. Carlos Mortalenaren seilu bilduma handia 03

Munduko 200 herrialdetako 15.000 seilu baino gehiago ditu Juan Carlos Mortalena arraioztarrak. «Aunitz ikasten da seiluei esker» dio.



Herri Urrats igande honetan Senperen 24

Hogeigarren urtea betetzen du igande honetan Senpereko aintziran eginen den Herri Urrats. Larunbatetik Saran gaupasa egiteko modua ere izanen da.

MARTIKO

04 Etengabe hazten ari den lantegia



gmb

Grupo médico dental del Baztan

hortz klinika berria
Elizondon! (Ikastola parean)

Santiago 47, 1. C • 948 581 900

Zure arazoaren soluzioa daukagu

**Profesional
kualifikatuak**

**Harrera
goxoa**

**Goi mailako
teknikak**

**Lehen kontsulta
dohain**

**Azken belaunaldiko
materiala**

**Finantziazio
aukera zabalak**



Larrode Anne Marie - Doktorea

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hortz-haginen Eskola
Ortodonozian Goi Mailako Ikasketak Zuztagria

Caplanne Jean Pierre - Doktorea

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hortz-haginen Eskola

Larrieu Thierry - Doktorea

Bordeleko Medikuntza Fakultatea
Bordeleko Hortz-haginen Eskola

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



- *Gazteendako
mobleak*
- *Armairu
enpotratuak*
- *Neurrira
egindako
armairuak*
- *Sukaldeak*
- *Aurrekontuak
konpromezurik
gabe*

Deskontu bereziak erakusketako mobleetan

ERAKUSKETA : Bittinia 3D

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

DATUAK...

- Duela 20 urte hasi zen Juan Carlos Mortalena arraioztarra seiluak biltzen. Orduetik, ia munduko xoko guzitako seiluak bildu ditu bere bilduman.
- Seiluak biltzea ez dela garestia dio Mortalena eta momentuan duen bildumak ez duela preziorik: «Gainera, aunitz ikasten dut seiluei esker».
- «Asia eta Afrikako seiluak dira politenak baina badut bat, Gernika, bereziki gustatzen zaidana» dio arraioztarrak.



Juan Carlos MORTALENA *Arraiozko seilu biltzailea*

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

«Munduko 200 herrialdetako 15.000 seilu baino gehiago ditut»

Joseba OLAGARAI

Noiz hasi zinen seilu bilduma hau egiten?

Orain 20 urte hasi nintzen. Guk tien-da bat dugu Arraiozen eta mandatuak andre xahar bateri erauten nizekion. Beti propina ematen zidan baina egun batian sabaian sekulako seilu pila zituela eta ea hartu nahi nituen erran zidan. Igo eta han zituen guziak hartu nituen. Seilu haiekin hasi nuen nire bilduma.

Zenbat seilu dituzu?

15.000 baino gehiago. Munduko 200 herrialde desberdinetakoak ditut. Karpetetan biltzen ditut eta dagoeneko 30 karpeta baino gehiago ditut. Gehienak irla ozeanikoetakoak ditut baina bertze aunitz herrialdetakoak ere bai: Afrikakoak, Ameriketakoak, Europa osoak... Normalean urtean ez ditut 20 seilu baino gehiago hartzen baina bilketa honetan daramazkidan 20 urtetan, ikusi zenbat lortu ditudan!

Nola eta nondik lortzen dituzu seiluak?

Espanian ateratzen diren seilu berriak "Servicio filatelico"tik bidaltzen dizkirate baita Andorra, eta Ginea

«Amak eta koñatak erotu naizela erratan didate, ez dute ulertzen zergatik hartzen dudana holako lana seiluak biltzen»

Ekuatorialekoak ere. Bertzetik, badago "Discoplay" izeneko aldizkari bat, normalean diskoen ingurukoa baina tarteka seiluak ere agertzen direna. Aldizkari horretan ikusten badut badela seiloren bat nik ez dudana, erosi egiten dut. Eta jendeak bidalita ere hartzen ditut. Izan ere, nik Paraguai, Brasil eta Argentinan jendakiak ditut eta haiek igortzen dizkirate herrialde horietako seiluak.

Garestia da horrelako bilduma bat egitea? Zer balore izanen luke zure bildumak?

Ez da garestia. Nik urtean ez dut 7.000 pezeta baino gehiago gastatzen. Badira urteak seilu aunitz ateratzen direnak, adibidez duela 11 urte "Expo de Sevilla" egin zenean edo Bartzelonako Olinpiadetan. Urte horietan seilu aunitz egiten dituzte eta orduan gehiago gastatu nuen baina

normalean ez da garestia. Gainera, nik ditudan seiluak arras merke erosten ditut, normalean berez balio duten prezioan. Espainian badira seiluak 1.500.000 pezeta balio dutenak baina horiek ez daude nire esku. Britainia Handian ere oraindik garestiagoak daude, han ateri baitzen lehenbiziko seilua baina hangoak ere ez dira nire bildumak sartzeko gisa-koak. Nire bildumaren balorea? Niretzat ez du preziorik, ez nioke inori salduko. Urtetan eginiko lana dut eta gusto handiz egina gainera.

Noiz arte segituko duzu seiluak biltzen?

Ez dakit, aspertu arte. Nik ez dut negozioarako egiten, gustoz aritzen naiz. Aunitz gustatzen zait, bilduma polita egiteaz gain aunitz ikasten dudalako. Seilu bat hartu eta nongoa den ikusten dut, eta ongi ez badakit mapan begiratzen dut eta gisa horretan aunitz ikasten da. Adibidez "Honduras Britanica"ko seilu bat izan nuen eta ez nekien non zegoen. Begiratzen hasi nintzen eta orain herrialde hori ez dagoela ohartu nintzen. Pila-ka ikasten da.



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Peio Martikorena, «Conservas Martiko» enpresatik ateratzen diren produktuak aitzinean dituela.

AHATEKIEKIN HASI ETA BERTZE HAINBAT PRODUKTU ESKAINIZ

Etengabeko hazkuntzan ari diren enpresen jabe da Peio Martikorena

30 urteko iturgina zen orain dela hogeita hamar urte Peio Martikorena beratarra. Baina lanbide hori utzi eta Ibardinen benta bat erostea erabaki zuenetik erabat aldatu zitzaion bizitza. Gero, Arantzan piru edo ahate granja erosi eta ahatekien produkzioan hasi zen. Geroztik, bertze bi granja baditu lan berean, Beran eta Zuñigan, Lizarra ondoan. Ahatekiekin ez ezik, bertze produktu batzuekin ere hasia da orain lanean eta Dantxarinean hipermerkatua, sagardotegia, jatetxea, ostatua eta dantzalekua ireki ditu. Ipuineko Midas erregeak bezalaxe, ukitzen duen guzia urre bihurtzen duela erraten dute batzuk.

Joseba OLAGARAI

Ez da errexia Peio Martikorena bezalako pertsona bat definitzea: Langilea edo enpresarioa?. Berari galdetuta ere, ez daki baten edo berteraren alde jotzen: «Langile edo enpresario? Denetik pixko bat. Urte ba-

tzuk badituz enpresario gisara Martikon, produktu ugari eskainiz. Lehenago iturgin moduan aritu nintzen, gero mugara joan ginen, Ibardinera, gero ahategara, berriz mugara, Dantxarineara... nahiko ibilbide egina du-gu, bai».

Hori bai, ongi ezagutzen dutenen arabera, langile porrokatua da Peio Martikorena, ez bere bulegoan eserita orduak ematen dituen enpresaria, edozein lanetan langileei eskua botatzeko prest dagoena baizik. Bere ustez, funtsezkoa baita elkarlana: «Lana eginez gero, ekipoarekin elkartzea errexagoa dela erraten dute. Nik hori egin dut eta orain arte ongi joan zait». Horretaz ez da dudarik. Ibardingo bentatik, Arantzako ahate granjara egin zuen salto. Hura tiki gelditu eta Beran bertze baserri bat erosi zuen zeregin horretarako, baita Zuñigan ere. Beran eta Alkaiagan lantegiak ireki zituen ahateki produktorako. Geroztik, bertze produktu batzuekin ere lanean ari da, bakailua, izokina... Bidasoako izokina ezaguna izan arren, Martikon ez dute bertakoarekin lanik egiten, ez baita as-



30 urte gibelera egin eta nola pasatzen da 30 urteko iturgin bat lana utzi eta lbardinen benta bat irekitzera?

Iturgin gisara lbardinentzat lan aunitz egiten genuen eta orduan pentsatu genuen, hemen zerbait bada. Terreno bat erosteko modua izan genuen, benta egin, gauzak ongi joan ziren eta horrela segitu genuen. 1967ko ekainean ireki genuen benta eta 1969an iturgintza uztea erabaki nuen.

Geroztik, ahatearen transformazio lanetan hasi zinen...

1988an Arantzan piru granja egin genuen, tikiak gelditu zitzaigun eta lbardingo basterri batera ekarri genuen, hura ere tiki gelditu zitzaigun eta tarte horretan Zuñigan ere granja montatu ge-

nuen. 1991n Zalaingo Izarra lantegi zaharrera etorri ginen eta 1998an Alkaiagako lantegi berria ireki genuen. 1999an izokinarekin ere hasi ginen eta pixko bat hori izanzen litzateke gure kurrikuluma.

Euskal Herrian aunitz saltzen omen duzue, baina pixkanaka Espainian ere merkatua zabaltzen ari zarete eta Amerika aldera ere jo duzue...

Euskal Herrian hasi eta gero Espainiara zabaltzen hasi ginen. Gero Kuban eta Argentinan egin ditugu operazio on batzuk, Mexikon nahiko ongi, Txilen entsaioetan ari gara. Izokina Bidasoara etortzen da arraultzeak errutera eta gero ez dakit nora joaten omen da bizia egitera, guk ere izokinaren sistema bera egiten dugu, Bida-

soatik abiatu eta segi urrutiti, ikusiko dugu non geldituko garen.

Dantxarinean ere benta paratu zenuen, nahiko motel zegoenean...

Bere garaian Dantxarinea lbardin baino hagitzez garrantzitsuagoa izan zen, baina geldialdi bat izan zuen. Pentsatu genuen gauza bat ongi eginez gero lehengo bidedetik hasten ahal zela. Duela bi urte benta egin genuen eta ongi doaie.

Semeek ere laguntza eman dizute, Martiko enpresaren eta markaren etorkizuna segurtatua dago.

Marka ezikan, kalitateko produktua egin dugu eta orain jubilazioan pentsatzen hasia naiz. Pena da hori uztea, baina mugak gaur egun bezala segituz gero... Martikok boladaska baterako segituko dutela erraten ahal da. Timonel ona izan naizela uste dut, baina arraunlari onik gabe trainerua ez doaie aitzinera.

“Lemazain ona izan naiz, baina arraunlari onik gabe trainerua ez doaie aitzinera”

ki: «Izokinaren %80 Noruegatik ekarzen dugu, baita Eskozia eta Irlandatik ere, Bidasoako izokinik ez dugu erabiltzen. Jatetxetan ongi martxatzen du eta dendetan ere ongi hasi da. Poliki-poliki merkatua zabaltzen ari gara».

HIRUREHUN LANGILE BAINO GEHIAGO

Azkeneko saltoa Bortzirietatik Urdazubi aldera eman zuen, Dantxarinearera. Hipermerkatua ireki zuen lehenik, sagardoegia, jatetxea, ostalua eta dantzalekua ondotik. Inguru honetan, Aceraliaren ondotik, langile gehientsuen enplegatzen dituen enpresa dela erraten ahal da, fabrika eta benten artean hirurehun lagun enplegatzen baititu Martikok. Granjak kontatuta pixko bat gehixago. «Gehiena hemengo jende gaztea da, Berakoa edo Bortziriak ingurukoa, desplazamenduetarako hobeiki bertzerik ez da».

Etorkizunera begira, bere “inperioa” zabaltzen segitzeko asmoa du Martikok, beti ere Iparraldeko muga inguruan. «Behobian perfumeria kontuekin hasi nahi dut, baimenen kontua nahiko luze doa. Bertze proiektu batzuk ere baditut burutan».

AHATEKIAN OINARRITUTAKO PRODUKZIOA

Geroztik bertze produktu batzuetara zabaldu baldin bada ere, ahatekian oinarritutako enpresa da Martiko. Eta zerritik bezala, ahatek ere guzia probesten ahal dela jakinarazi digu Joseba Martikorenak, Peioren seme zaharrenak. Fabrikari ahatea hil eta lumatu egiten dute. Ondotik hozgailuan sartzen dute, gibela pixko bat gogortzeko eta aisago ateratzeko. Gibela ateri eta kalitatearen arabera bereizten dute.

Ahate barrenak eta zikinkeriak alde batera utzita, zona garbian sartzen da prozesua. Gibela zinta batzuen bidez joaten da eta kalitatearen arabera sailkatzen da, kolpeak, testura eta neurria kontuan hartuz: extra, lehen maila, pusketarako ibiltzen dena eta purea.

Barrenak kenduta heldu den ahateari berriz, lepoa moztu eta hezurretik bereizten zaio haragia. Ahate paparra, hegalak eta izterrak bereizten dira. Azken bieki gatza ematen zaie, gero egosteko. Paparra, gatza eman eta seka derora eramaten da, urdaiazpikoa egiteko. Paparrak bi eratara saltzen dira, urdaiazpikoan eta freskoan.

Confit sekzioan, produktua bere saltsan egosi egiten dute. Beraz, ahatea-



Martiko lantegian, ahatea lantzen.

ren grasa berarekin, egosten dute izterrak eta gero, latan sartzen dute. Joseba Martikorenak dioenez, «base rrietan lukainekin egiten den prozesu bera da, grasa eman produktuaren bizia luzatzeko eta ez hain abudo hondatzeko».

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketak...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Euskal Herria: kontzeptu kulturala. Nafarroa: Euskal Estatu.

Euskadi hitza asmatu zutenek arrakasta azkarra ukan zuten. Euskaldunon askatasun egarria adierazteko kontzeptu baliagarria izan da urte luzez jende aunitzendako eskualde batzuetan. Azken 25 urteotan, Espainiak onartu eta gidatu duen euskal egituraketa instituzionalarekin batera, Euskadi hitza prostuitu da. Mendebaldeko lurraldeek haien egituratze politikoa adierazteko kontzeptutzat hartu dutenez, Euskal Herri osoaren adierazpide politikoa izateko gaitasuna galdu du, sekula izan baldin badu.

Euskadi kontzeptuaren ordezkotzat jo dute hainbatek Euskal Herria. Alta, azken hitz honek sekula ukan ez duen esanahi politikoa erantsi nahi izan zaio. Izan ere, Euskal Herria hitza euskararen herria adierazten du, eta ez inolako asmo politikoa edo lurralde politikoa. Horrelaxe ulertu zuten Joanes Leizarragak eta Axularrek lehen aldikotz idatzi zutenean.

Euskal Herria euskararen herria da. Euskaraz mintzo den populua adierazten du. Hizkuntzak, ordea, etengabeko lurralde murrizketajasan du azken 2000 urteotan.

Erromatarrak, "Ager Vasconum" -baskoien lautada- eta "Saltus Vascomun" -baskoien mendi aldea- ziotenean, hizkuntz komunitate bakar

batez ari ziren. Orduan, oraindik, politikoki egituratu gabe zegokeen populua, alegia.

Antso VI.a Jakituna ez zebilen txorakerietan euskarari "lingua navarrorum" deitu zionean. "Nafar" kontzeptua euskaldun askeei zegokien hitza izaki, nortasun politikoa hori zeukatenen hizkuntzat jotzen du erregeak.

IX. mendetik bere burua politikoki egituratuta zeukan herri hark eten gabeko lurralde higadurajasan behar izan zuen: 1200. urtean Nafarroako Erresumak mendebaldeko lurraldeak galduko zituen (ordudunik Gaztelako koroaren menpe bere burua administratiboki egituratuko zuten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa); 1512. urtean Hego-Ekialdeko lurraldeak (Nafarroa Garaia deitu ohi duguna); 1620. urtean, Nafarroako Erresuma murriztua Frantziakoari lotuko dio Luis XIII.ak.

Horren erreferentzia historiko-politiko garbia ukan duen herriak bere memoria historikoari uko egin eta XIX. mende amaieran abiatuko den "Euskal nazionalismoaren" diskurtsoaren arabera bideratuko du, nagusiki, bere askatasun egarria. "Euskal estatu Independentieak" deitu zituzten erreferentzia historiko faltsuetan oinarrituta eta euskalduntasunaren eredu atlantiarra nagusitatzat hartuta, euskal nazionalismoak imaginario kolektibo murriztua osatu zuen. Anacleto Ortueta bilbotarrak "Desplazamiento geográfico del concepto de Vasconia hacia el Atlántico" esaldiarekin kriti-

katuko zuena ("Vasconia y el Imperio de Toledo". Ortueta, A. 1934; 428.or.).

Arana anaiek abiatu zuten pentsamendu politikoa hark lehen urratsak ematen zituen garaietan, ordea, bazen bertzelako ekarpenik. Nafarroa euskaldunon babesleku politikoa historikoa izan dela azpimarratu zuten egile aunitz Asociación Éuskara de Navarran bildu ziren (Campión, Iturralde y Suit, Pedro Navascués, Altadill...), baina ildo berean sakondu zuten bertze hainbat ez ziren hego-ekialdeko jatorrikoak (Anacleto Ortueta -Bilbo-, Ildefonso Gurrutxaga -Azpeitia-). Guzti hauen ekarpenak baztertu ditu XX. mendeko euskal abertzaletasunak. Aranismoan oinarritu du euskal abertzaletasunaren adar orok bere diskurtsoa. Mende luzez euskaldunon adierazpide politikoa izan den Nafarroa kontzeptua "Euskadi" izeneko asmakizunaren zati bat bertzerik ez zelakoan eta "Nafar" kontzeptuak euskaldunon nortasun politikoa edo juridikoa subira noa adierazten duela aintzat hartu gabe. Mende amaieran, Mendebaldeko lurraldeek osatuko duten egitura politikoa -EAEk- egin duen "Euskadi" kontzeptuaren patorionializazioaren ondorioz, "Euskal Herria" kontzeptuari eman nahi izan zaio esanahi politikoa, nahiz eta jakin, badakigun, gure nortasun kultural eta linguistikoa adierazteko terminoa baizik ez dela.

Nafarroa ez da Euskal Herriaren zati bat. Ez da euskal lurralde bat.

Nafarroa da euskal lurraldea. Hain zuzen ere lurraldetasuna, bere osotasunean, adierazten duen kontzeptu historikoa, juridikoa eta politikoa. Nafarroa izan da euskaldunon etxe politikoa. Ez dugu zertan ezereirik beharrik. Zimentuak nabarmenak dira. Berrearaikitze zimentu garbiak baditugu. Gure burua nafar herritartasun politikoa berreskuratzeko bidean jarriko ez dugun bitartean jai dugu.

Ikuspegi honetan oinarrituta sortu zen 2001eko urrian NABARRALDE ekimena. 2002. urtean zehar barne antolaketa lanetan aritu gara. 2003. urtearekin batera gure burua ezagutzera ematen hasi gara dozenaka aurkezpen txiki eginez, gure webgunea osatuz (www.nabarralde.com), eta ekimenaren bizirauten ekonomikoa ziurtatuko duten sustatzaileak bilatuz (500 dagoeneko). Kultura, ezagupena, jakintza eta komunikazioaren esparruan kokatzen dugu gure burua. Gure memoria historikoa eta nortasun politikoa berreskuratzeko lanean ezinbertzekotzat jotzen baitugu dibulgazio eta komunikazio lana.

Honen bitartez dei egiten dizuegu sentsibilitate honekin bat zatorrenei gurekin harremanetan jar zaitezten: info@nabarralde.com -en bitartez edo (34) 902 197 051 telefonoan.

Erlantz Urtasun eta Gaizka Aranguren (NABARRALDEko ki-deak)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Gara 2003-04-22

«Ameriketako Estatu Batuetara begira daude txinatarren begiradak. Paradoxikoa da, izan ere, haientzat Ameriketako Estatu Batuak betiko etsaiak eta gainditu beharrekoak dira, baina aldi berean, haien gizarte eredia nahi dute. Gorroto izugarria diete baina hala eta guztiz ere, hara begira daude».

Jon ABRIL
Berako kazetaria
Gara 2003-04-22

«Ni gustoa nago "Sorginen laratza"n, Lagun handiak egin ditut eta, batez ere, horregatik nago gustora. Baina egia da, bestalde, beste motatako proiektu batean parte hartzea gustatuko litzaidake. Telebistako saioak, oro har, bide beretsutik doaz gehienak. Aunitzetan espektakulu hutsa da telebista»

Estitxu FERNANDEZ
Lesakako kazetaria
Ze Berri? 2003-04

• 11 GALDERA LABUR •



Oianko GARDE *Gartzaingo gaztea*

- Definitu zure burua hiru hitzetan.**
Xirika, abenturera eta errebeldea.
- Baztango neska kirikoketari bakarra omen zara...**
Bai, zoritxarrez. Gehiago animatzea gustatuko litzaidake.
- Zergatik kirikoketa?**
Txalapartarekin hasi nintzen eta gure historia eta kultura berreskuratu nahiean, kirikoketari ekin nion gero.
- Basetxean ikusi zaitugu. Zergatik sartu zinen?**
Esperientzia berri bat bizitzera.
- Leku aunitzetan ezagutuko zaituzte orai. Nola daramazu hori?**
Nahiko ongi, baina momentu txarrak ere badituzu. Zaila da denekin jatorra izatea.
- Bidai bat irabaziz gero, norat joan ezin zinateke gustora?**
Australia, Brasil eta Egiptora.
- Zerk lotsatzen zaitu?**
Deus guttik.
- Juerga on bat non eta norekin?**
Lagunekin eta kontzertu on batean.
- Bertute bat eta akats bat?**
Bertutea naturaltasuna izaten ahal da, beti naizen bezalakoa agertzea. Akatsa, batzutan burugogorra naizela.
- Zer da zure gorputzean gehien gustatzen zaizuna?**
Begiak eta irrifarrea.
- Zer du Baztanek, bertze tokiek ez dutena?**
Xarma berezi bat.

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

TEL K E
K MISET K ISE K
N HI UZUNK U U. NEU I ET ISEINO ERIN
Ezt r z h T l- F x 3 15 21

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

ERROTAZAR

Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

LESKA

KULTURA

Bidasoaldeko Musika Eskolen III. Topaketa maiatzaren 10ean ospatuko da Lesakan

Seirehun musikari inguru karrikaz karrika hedatuko dituzte beraien doinuak

ttipi-ttapa

Maiatzaren 10ean, larunbat goiz honetan, Lesakan egingen da Bidasoaldeko Musika Eskolen hirugarren topaketa. Aurtengoan lehenbiziko aldiz Bidasoa bazterretan dauden musika eskola guzietatik hartuko dute parte: Hondarribia, Hendaia, Irun, Bera, Doneztebe, Lesaka eta lehenengo aldiz, Elizondo. 2001ean Hondarribian eta iaz Bera 350-400 ikasleek parte hartu baldin bazuten, Lesakako saioak marka hori xehetuko du. 600 ikasle espero baitira.

Ekitaldia 10:00etan hasiko da, kioskoan. Bertan, Lesakako alkateak ongiatorria eman die partehartzaileek, eta aurrekoa dantzatu da. Gero, Lesakako karriketan hiru kalejira abiatuko dira. 10:30etan, gainerako ekitaldiak hasiko dira, horretako prestatu diren hiru eskenatokietan (Plaza Zaharreko apartakalekua, Udaletxeko ba-



ARALAR MUSIKA ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Apirilaren 12, Leitzeko Zinemaren, Aralar Udala Musika Eskolak "Errege Berri Bat" deituriko ipuin-musikala aurkeztu zuen. Ipuin Musikala Akordeoirako José Tomás Portok idatziriko obra da. Guztira 8 fabula dira non oihaneko animalen istoriak kontatzen dira, beraz, musika eta narrazioak bat egiten dute. Horretaz gain saioa marrazki eta argazki proiektioez lagundurik osatu zen. Musikariak Leitza, Lekunberri, Larraun, Basaburua, Ultzama, Araitza eta Beluko ikasleak izan ziren eta beraiekin batera Barañaingo "Luis Morondo" musika eskolako akordeoilari taldeak ere parte hartu zuen. Zuzendari lanetan konpositorea bera aritu zen eta ikasleekin batera denbora luzeak hauek prestatzen aritu diren Pilar Argiñena eta Marian Gonzalez irakasleek ere parte hartu zuten. Horretaz gain, Dani Narbarte musikaria aritu zen baxu lanetan eta narrazioan berriz Javier Irigoien. Guztira 35 musikari izan ziren taula gainean, zinea jendez beterik eta emaitza gustokoa denontzat.

tzar aretoa eta Alhondiga). 12:30etan, behin ekitaldi hauek akautu eta gero, Zambrara erro-



merianjoanen dira, Landazelaitik. Zambranizanen da Topaketen itxiera besta. Ikasle guziet

hartuko dute parte eta lekukoa emanen zaio heldu den urtean Topaketa antolatuko duen

Doneztebeko Agorreta musika eskolari. Ekitaldia akaututakoan, hameketako tiki bat eskainiko zaie parte hartu dutenei.

Javier Etxeberria, Lesakako Musika Eskolako zuzendariak aipatu duenez, honelako topaketa antolatzea «*erronka inportantea suposatzen du gure eskolarentzat, bai planifikazio aldetik, baita antolaketa aldetik ere. Horretarako, 2002ko urritik aintzineratu guraso eta irakasleek osatutako talde bat lanean ari da. Gainera, bertze erakunde batzuk ere laguntzen ari dira: Lesakako Udala, Zambra diskoteka, Abesbatza, Dantzariak, Musika Banda, San Fermín jubilatutako elkarteak, txistulari eta kordiolari taldeak, Ione Elgorriagaren trikitixa taldea...*».

Jende aunitz espero dute herrian egun horretan: «*Ikasle eta laguntzaileen artean, Lesakara 1.500 lagun inguru etorriko dira*».



BERA

Maiatzaren 31ko Gazte Egunean izena emateko epea laister irekiko da

Garai bateko Gazte Jokoen giroa berreskuratu nahi dute antolatzaileek

Amaia eta Ainhoa

Herriko gazte bazuen ekimenez, gazte giroa sustatu asmoz eta kuadrilen arteko harremanak sakontze aldera bultzatu dute Gazte Eguna, garai bateko Gazte Jokoen sortutako giroa berreskuratzeko xedearekin. Maiatzaren 31n, goizeko 11:30etan hasiko da besta eguna, aurkezpenarekin. 12:00etan kale antzerkia izanen da eta 13:00etan pintxo lehiaketa egingen dute. 14:00etan pintxo dastaketa izanen da eta 15:30etatik aitzinera Ginkana kulturala. 17:00etan proba konbinatua egingen dute eta 19:00etan bertso poteoa antolatu dute herriko ostatueta. 21:00etan herri afaria antolatua dago eta 23:00etatik aitzinera herriko tal-



ARGAZKIA: AITOR

Berako sarrera idekia

Aintzineko alean aipatzen genuen "Arkaitza" eta "Funvera" lantegien ondoren dagoen Berako sarrera itxia zegoela obrak egiten ari zirelako. Dagoeneko moldatze lanak akautu dituzte eta berriz ere ideki dute aipatu errepedea. Beraz, hemendik aitzinera ezinezkoa da bide horretatik errepede nagusira ateratzea, sarrera moduan bakarrik erabiltzen ahal da.

deen kontzertua izanen da herriko ostatueta.

Ekitaldi hauetan parte hartu nahi duenak,

maiatzaren 14tik 26ra eman beharko du izena Kultur Etxean 16:00etatik 19:00etara. Partaide

bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu, afaria eta poteoa barne dira.

FLASH

Toki Ona kiroldegia

Toki Ona Kiroldegian udaberri honetarako ekintza desberdinak antolatzen ari dira eta hauen artean Tai-Chi seminarioak egiteko asmoa dago. Maiatzaren 17 eta 24ko larunbategi izanen dira saioak eta izen ematea maiatzaren 9a arte egiten ahal da Toki Ona Kiroldegiko bulegoan edo 012ra deituta.

Oskar Goñi atxilotua

Oskar Goñi, herriko zinegotzia eta Udalbiltzako zuzendaritza batzordeko kidea atxilotu zuen Espainiako Poliziak apirilaren 29ko goizaldean, Udalbiltzaren aurkako operazioaren barnean.

Mugaz Gain Jaialdia

Maiatzaren 15, 16, 29 eta 30ean, haur eta gazteek egindako antzerki jaialdia egingen da.

BERAINEZ



Josu Goia Etxeberria

- Mirentxu Garcia Lanz.
- Oskar Goñi Petrarena.
- Bittori Telletxea Maia.
- Ramontxo Elgorriaga Errandona.
- Garbiñe Goia Irazoki.
- Cristobal Ruiz Lopez.
- Angel Iraola Rozas.
- Txus Unson Pabolleta.
- Txaro Zubieta Erki-zia.
- Ibai Gogortza Asensio

KIROLA

Berako VI. Mendi Itzulia maiatzaren 18an

Agerra Mendi Taldeak, Berako Udalaren laguntzarekin, VI. Berako Mendi Itzulia antolatu du. Aurtengoan maiatzaren 18an egingen da eta irteera goizeko 7:00etatik 8:00etara izanen da. Hala ere, parte hartu ahal izate-

ko izen ematea Agerra Mendi Elkartean egin beharko da goizeko 6:00etatik 7:50ak bitartean, 6 euro ordainduta. Bi ibilbide aukeratzen ahal dira eta luzeena ondorengoa izanen da: Agerra, Larretagaina, Santa Barbara,

Idoia, Labiaga, Lizuniaga, Kondegiaga, Larun, Yasola Zaharra, Landagaita, Usataegieta, Ibar-din, Azkenbenta, Mandela, Posta eta Agerra. Aipatu ez dela inolako sailkapenik izanen eta kontrol postu guzietatik pasatu direnei bukaeran diploma bat emanen zaiela.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

© 948630155
BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
 Eztegarra 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

LESACA

Kultur taldeek partehartze handiagoa eskatu diote Udalari

Kultur Etxearen proiektuan kolaborazioa eskaini nahi dute

Aitor AROTZENA

Herriko kultur talde-etako ordezkariak bere kezka adierazi dute kultur etxea, liburutegia, musika eskola eta erakusketa aretoa bilduko lituzkeen kultur gunearen nondik norakoak argitaratuak ikusi ondotik.

Duela lau urte talde guzien beharrak kontutan hartuko lituzkeen egitasmoa egitea eskatu zioten udalari, proiektuan kolaborazioa eskaintzeaz gain. Zenbait bisiten ondotik, «*zirriborroa edo oinarrizko ideia diseinatu genuen*». Kultur taldeen idatzia- ren arabera, harreman hori eten zen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez komentua- ren inguruko lurrak birkalifikatu behar zirela jabetu ziren. «*Honi buruz Herriko Etxean galdetu dugunean dagoeneko bukatuta dagoen proiektu bat aurkitu dugu, munta handiko kultur gune batena. Proiektu hone- tan eskatutako zenbait gauza agertzen dira, berzte batzuk falta dira eta gauza berriak ere badira*». Kultur taldeak berriz ere bildu egin ziren eta gehienentzat proiektu ezezaguna zela kontuan hartuz, bere ezaugarriak zein egoe- rari buruzko bilera in- formatiboa eskatu zio-

ten Udalari. Udalak es- kaera onartu zuen eta talde ezberdinei era- kustaldi osotua eta xe- hea egin zien.

Irain ikastetxe publi- koko eta Tantarumairu ikastolako guraso el- karteek, Lesakako Ban- dak, Txistulariek, Triki- tulariek, Akordiolariak, Euskara Batzordeak, Musika Eskolako gura- soek, Bertso Eskolak, Herri Eskolak, Gazte Abesbatzak, Lesakako Abesbatzak, Mairu An- tzerki Taldeak eta Tan- tirumairu Euskal Folklo- re Taldeak sinatutako idatzian ageri denez, «*ohartu gara egitasmo- ak badituela zenbait arazo eraikina egin baino lehen konpondu nahiko genituzkeenak, proiektu hau gure parte har- tzerik gabe burutzen ari baita*». Proiektua akau- tutakoan espektatibak bete gabe gelditzen ahal direla uste dute: «*erabi- bili behar duten taldeek inork baino hobeki da- kigu egonerkotasune- an ditugun arazoak eta horietarako konponbi- deak*».



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Hameka koadrilatan bildutako ehun bat gaztek parte hartu zuten apirilaren 26ko Gazte Olinpiadan. Giro eta umore ederra paratu zuten plaza inguruan, goizeko «Mandaulitik mandaulira» jokoarekin, paella egitearekin, bazkaria- rekin eta bazkal ondoko proba konbinatuarekin (argazkian probetako bat). Kattun egindako afarian ere ehun gazte bildu ziren, beraz, arrakasta osoz joan zela erraten ahal da, dudarik gabe.

PNV-EA



Jose Luis Etxegarai Andueza

2. Juan Fermin Mitxelena Larralde. 3. Juan Carlos Ayala Fernandez. 4. Laura Iantzi Mitxelena. 5. Esteban Irazoki Irazoki. 6. Antonio Hidalgo Hidalgo. 7. Pedro Apeztegia Altzugarai. 8. Agustin Arriola Altzugarai. 9. Severiano Txoperena Matxikote. 10. Carlos Ubiria Portu. 11. Jose Esteban Etxebeste Apeztegia.

HERRIA AINTZINERA



Begoña Igoa Almandoz

2. Andoni Sarasola Iar- zabal. 3. Iban Maia Or- mazabal. 4. Kontxita Erro Jauregi. 5. Jose Angel Zu- biria Leiza. 6. Karmele Or- doñez Sancho-Miñano. 7. Jose Esteban Etxeber- rria Tapia. 8. Patricia Mar- tinez Mateo. 9. Fco Ja- vier Susperregi Otxote- ko. 10. Ainhoa Terreros Garcia. 11. Jose Juan Zu- bieta Portu.

ONIN



Deñe Abuin Arrasate

2. Fermin Altzugarai Igan- tzi. 3. Tomas Maia Tapia. 4. Gabriel Igartzabal Etxa- bide. 5. Jose Ramon Ta- berna Arana. 6. Alfonso Obeso Perez de Calleja. 7. Maite Telletxea Mayo. 8. Salvador Madariaga Al- mandoz. 9. Jose Maia Al- tzugarai. 10. Jose Igna- cio Arriola Altzugarai. 11. Jose Miguel Arbelaiz Her- nandorena.

IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 948 637 127
LESACA

ANIA
Janaridena

Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESACA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Bizpahiru urteren ondotik, azkenean moldatu dute herri sarrerako errepidea. Joan den apirilaren hirugarren astean breaztatu zuten 2. kilometrotik 4.era joaki den zatia. Orsa S.L izan da obrak egiten ari den enpresa, N121 errepidea moldatzen ibili den bera. Horrela, orain etxalartarak badugu bolada bateko karretera.

Animaliei egiten zaizkien esperimenter buruzko argazki gogorak ikusten ahal dira Itziar Mendikoak prestatu duen erakusketan. Apirilaren 12an egin zen Bortzirietako Korrika. Irteera Etxalartik zen eta lehenbiziko hiru kilometroak Altxatak, herriko gazteek eta udalak egin zituzten. Argazkiak ikusten ahal den bezala, jende mordoska bildu zen herrian eta zenbaitzuk bidegurutzeraino ailegatzea ere lortu zuten. Etxalarko Korrika Batzordea arrotz gustura ageri zen bildutako jendearekin eta euskararen aldeko oihua herritik zabaltzen aritu zirenei bere esker ona adierazi nahi die.

Bibisekzioari buruzko erakusketa paratu du Itziar Mendikoak Kultur Etxean

Azkenean moldatu dute herri sarrerako errepide

Joseba eta Nerea

Bibisekzioa gaitzat hartuz, 25 bat argazki osaturiko erakusketa paratu du Itziar Mendikoak 21 urteko etxalartarak. Bibisekzioa animaliekin esperimenteratzea da, helburu militar edo zientifikoarekin, pastilak, gasak, likidoak... probatzeko egiten dena. Proba horiek direla eta, animaliek zenbat

sufritzen dute erakutsi nahi izan du argazki gogor hauen bidez.

Arte Ederrak ikasten ari da Itziar Leioako unibertsitatean eta erran digunez «gai ezezaguna da bibisekzioa, baxterea aditua ez dena eta agian zer pentsatu emanen digute gai honi buruz». Erakusketa maiztaren 16ra arte egonen da zabalik eta nahi du-

tenek bisitatzen ahal dute Etxalarko Kultur Etxeko bigarren solairuan 16:00etatik 19:30etara.

Bataioak

Urtero bezala bazko igandean bataioak izan ziren herrian. Bi izan ziren bataiatuak: Axularko Xabier Iparragirre Zubieta eta Matiseneko Leire Iribarren Indaburu.

HERRI TALDEA



Miguel Mari Irigoien Sanzberro

2. Jose Maria Maia Ariztegi. 3. Anabel Arburua Olagarai. 4. Patziku Iriarri Elizagoien. 5. Nerea Mitxelorena Iparragirre. 6. Jose Manuel Irazoki Gainza. 7. Salvador Ansalas Ozkariz.

EA



Manuel Leza Olaizola

2. Agustin Arribillaga Danboriena. 3. Aranzazu Zubieta Ameztoi. 4. Jose Antonio Telletxea Bergara. 5. Jose Ariztegi Irigoien. 6. Joseba Andoni Genua Santamaria. 7. Aitor Sansiñena Sarobe.

KOXKILA OSTATUA
Berrri mus Koxkilan!
Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

Ioredenda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazi _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____

Egunero bitxia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO

ANÁLISIS DE CALIDAD DE LOS PRODUCTOS

IGANTZI

Lehenbiziko aldiz zerrenda bakarria izanen da udal hauteskundeetan

PNV/EAK ez du hurrengo legealdirako bere hautagaitza aurkeztu

Oskar TXOPERENA

Inor guttik espero zuena gertatu da maiatzaren 25eko udal hauteskundeetarako zerrendak jakiterakoan. Izan ere, orain arte izandako sei legealdietan beti bi talderen artean aukeratu ahal izan dugu igantziarrok, baina, oraingoan bat bertzerik ez da izanen, Herri Taldearena. Azken legealdian alkatetza izan duen PNV/EA taldeak ez du izenik eman. Ondorioz, izendapen ofiziala hauteskundeen ondotik hartuko badute ere, Herri Taldeko zazpi partaide hauek izanen dira udalbatza osatuko duten zinegotziak: Jesus Mari Begino, Juan Mari Arburua, Anuntxi Txoperena, Vidal Etxarte, Jesus Mari Sein, Blanca Matxikote eta Andres Zelaieta. Lehengo zerrendak ikusita berrikuntza handia izan da taldearen barrenean, Vidal Etxarte baita zinegotzi lanetan lehen ari den lagun bakarria.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Orain dela hilabete pare bat inguru hasi ziren Sasoi enpresaren langileak ur biltegi berria egiten. Uhaldeko borda eta Goietxebordaren tartean ari dira lanean eta dagoeneko zola azpian dauden instalazio guztiak eta zola bera ere eginak dituzte. Orain urari eutsiko dioten paretak akautu nahian dabilta. Eguraldiak orain arte bezala segitzen badu honen beharra izanen da udan.

Pilota Txapelketa eta nesken bilkura

Apirilaren 27an hasi zen Nafarroako herriarteko pilota txapelketa Malerrekaren aurka herriari jokaturako partidekin. Hiru kategori ttikietan jokatzeko da B mai-

lan eta lehen jardunaldian hiru partidak galdu ziren hagitz indartsuak den Malerrekaren aurka. Zaila da herri bakar batek, ttikia izanik gainera, hainbertze herri biltzen dituen taldearen aurka lehiatu ahal izatea.

Palaz ari diren neskak, berriz, Irun, Hernani eta Hondarribiko taldeekin ekainaren 1ean Igantzin bilkura egiteko gelditu dira. Pala partidak izanen dira goiz osoan eta ondotik Biltoki Elkartearen izanen dute bazkaria.

Herria ezagutuz

Basajaun elutsa

1680tik aitzinerako kontuak biltzen ditu herriko artxiboan dagoen libururik zaharrena. Ikatza egiteko egurraren salmenta izaten zen diru sarrera garrantzitsuenetako bat, eta, hori dela medio, paraje izen ugari ageri da bertan. Goian aipatzen dugun parajea Ezpeltegitik Argaratetxerri aldera dagoen erreka zokoa da. Gaur egun Basallusko erreka deitzen zaio eta aldaera idatzitako aunitz ezagutu izan ditu: Basaelus, Basailus, Bazareluz, etabar. Nola jakin, ordea, izen honen jatorrizko erranahia aipamenik zaharrena ez aurkituz gero? 1704: «cobrados cien reales de Bautista de Miguela por cargas de monte de hacer carbón en el paraje de Bassaiaun Elus».

HERRI TALDEA



Jesus Mari Begino Garro

2. Juan Mari Arburua Etxeberria. 3. Anuntxi Txoperena Matxikote. 4. Vidal Etxarte Martinez. 5. Jesus Maria Sein Ordoki. 6. Blanca Matxikote Irigoien. 7. Andres Zelaieta Eltzaurdia.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Laudio pinturak

Pintura orokorrean
Fatxadak. Auzo elkarteak
Etxebizitzak:

- Barnizatuak.
- Paper lanak.
- Ozeleak.
- Estukatuak, etabar.
- Hornak leunari.

948 63 16 02
810 62 70 56
BERA

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxes: 948 637 313

ARANTZA

Toki-Onako Batxilergoko lagunen mendi ateraldiak herrian geldialdia egin zuen

Bera-Aritxulegi-Arantza-Bera ibilbidea egin zuten hiru egunez hogeita hamar ikasle eta bi irakaslek

Nerea ALTZURI

Urteroko Astesantuko asteburu luzea atzen-dua dugu. Opor tikiak, bisitariak, elizkizunak, kanpo giroa... osagai hauek eta abar luze bat gaineratuz joan ziren egun horiek. Herritar batzuk atseden egun horiek herritik kanpo pasatzen dituzte. Hala ere bertakoek kanpora ateratzeko baino ohitura gehiago dute kanpotarrek herrian egunak igarotzeko. Aterpea, landetxeak...beteak izan dire astesantuan eta pasatu berri dugun zubiko asteburuan. Batzuk berzeek baino egun gehiago izan dituzte oporraldiaren barrenean. Irakaskuntza esparruko lagunek ohiko oporrak izan dituzte urteroko legez. Astesantuko oporrak hartu aintzineko egunak, apirilak 14, 15 eta 16, ikasturteko ekin-tza batekin osatu zituzten Berako Toki- Ona



institutuko batxilergoko lehen mailako ikasle eta irakasleek. Guzira hogeita hamar ikaslek (tarte-an arantzarrak) eta bi irakaslek aste motza ikasgelan egin beharrean ikastokitik kanpo egin zuten. Mendi ateraldia antolatuta, hiru egunez, Beratik abiatu eta bertan akatutu zuten ibilbidea, Aritxulegin eta Arantzan gauak pasatuz. Lehenengo egunean, Aritxulegin egin zuten lo. Bigarrenan,

asteartean herriko Aterpean gaua iragan zuten eta biharamunean hemendik abiatuz, Berara ailegatu ziren, han Astesantuko oporraldia pasatu bitarte agurtu ta norbera bere etxera bueltatuz. Eguraldia lagun izanik, egun paregabeak pasatu zituztela erran digute.

Eskularen ikasturte bukaera

Eskularetako lagun

BAGARA



Jose Ramon Amoros Oskoz

2. Nerea Altzuri Ordoki. 3. Xabier Altzuri Apeztexea. 4. Gabina Goia Iparragirre. 5. Mentxu Peña Lizarazu. 6. Teodoro Pikabea Zubieta. 7. Xabier Zugarramurdi Altzuri.

PNV-EA



Vicente Arozena Biurrarena

2. Sagrario Iparragirre Gonzalez. 3. Pablo Bergara Larretxea. 4. Fco. Javier Taberna Iturria. 5. M^a Luisa Almandoz Mitxelena. 6. Juan M^a Iturria Mazizior. 7. Jose Gabriel Larretxea Leiza

Udal hauteskundetarako bi talde aurkeztu dira herrian. Goitian ageri dira bi zerrendak eta zerrenda-buruak argazkiak. Ezkerrean, berriz, Bagara udal taldeak agerraldi publikoa egin zuen apirilaren 18an herriko plazan.

taldeak ikasturtea agurtu zuen hilabete hasieran. Guzira hogeitau inguru ikasle aritu dira Pui irakaslearekin eskularen egiten. Gisa guzietako lehengaiak erabiliz, eskulan politikak egin dituzte astearte arratsaldero bi txandatan bitzen ziren emakumeek: jarroiak, kuadroak, ispi-luak, tapeteak, zintzilikari hornitzaileak... Haria, margoak, beirak, egurra, teilak...erabiliz era guzietako hornitzaileak

leak ekarri dituzte etxean paratzeko edo oparitzeko zinez gauza politak. Urtero bezala, afa-ri bat antolatu du taldeak ikasturtea agurtzeko eta klaseetan egindako lanei buruz lagunartean lasai ederrean solasteko.

Eskularen ikastaroa aintzineran eramateko, Nafarroako Emakumeen Institutuak diruz lagundu du. 1.420 euroko dirulaguntza hartu du ikastaro honek.

OKANE

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

Kanttonberri 4
Tfnoa: 948630018
BERA

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
ALFONBRAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

MALERREKA

Udal aurrekontua onartu dute Beintza-Labaien, Donamaria, Oitz eta Urrotzen

Mendiko lanetan joanen dira inbertsio zati handiak

ttipi-ttapa

2003ko diru sarrera eta irteerak zehazten dituzten udal aurrekontuak onartu dituzte Beintza-Labaien, Donamaria, Oitz eta Urrotzko Herriko Etxeetan.

Beintza-Labaienen 478.378,35 euroko aurrekontu osoa izanen dute. Inbertsioak, berriz, 250.786 eurokoak izanen dira. Kanposantua berritzen joanen da kopururik handiena, 93.156,88 euro. Mendiko lanetarako 92.550 euro bideratuko dira, hirigintza udal plana idazteko 21.000 euro eta ur depositoa inpermeabilizatzeko 10.000 euro.

Donamariako udalean, 72.391,49 euroko

aurrekontua onartu dute. 441.171,17 euro inbertsioetara bideratuko dituzte. Belagietara eta nekazaritza lurretara doazen bideak moldatzen 230.709,08 euro gastatuko dira. Mendiko lanetan 40.643,77 euro joanen dira. Joan den urtean egindako zenbait lan ordaintzen joanen da diru-zati handi bat: moldatutako bideentzako 115.000 euro, Uxarreko elektrifikaziorako 60.542 euro eta Plan Muzipala ordaintzen akitzeko 20.220 euro.

Oitzen, 601.279,95 euroko aurrekontua izanen dute eta kopuru horretatik 459.988,21 euro inbertsioetara bideratuko dira. Obrarik handiena, herriko ur garbien eta zikinen sareak berritzea izanen da,

276.013 euro bideratuko baitira lan horretara. Mendiko lanetan 90.390 euro joanen dira, errepide nagusitik herrirako sarbidea moldatzen 73.642 euro eta behe tentsioan elektrifikazioa egiten 13.388 euro.

Urrotzen, azkenik, 348.929 euroko aurrekontua izanen dute. Aurtengo inbertsioak 215.416 eurokoak izanen dira. Diru kopururik handiena ur garbi eta zikinen sareak berritzen joanen da, 118.000 euro. Iazko aurrekontutik ere 166.000 euro hartuko dira lan honetarako. Nekazaritza bideak moldatzeko 76.000 euro izanen dira, Utsalako karrika moldatzeko 20.000 euro eta mendiko lanetarako 20.176 euro.

URROTZ

Herriko Alkartasuna

1. Ignacio Urroz Grajirena. 2. Juan Pedro Zozia Goñi. 3. Martin Mariezkurrena Juanena. 4. Martin Lazkano Goñi. 5. M^a Jose Larraioz Ariztegi.

SUNBILLA

EA



**Jose Maria
Hernandorena
Lastiri**

2. Martin Irazoki Zubietta. 3. Margari Capdequi Aiertza. 4. Jose Francisco Errandonea Zubietta. 5. Jose Miguel Zelaieta Lastiri. 6. M^a Jose Mitxelena Otegi. 7. Francisco Javier Petrirena Arretxea.

ARTOLA



**Faustino
Mariezkurrena
Azpiroz**

2. Jose Miguel Petrirena Altzuguren. 3. Alba Fernandez Martinez. 4. Jose Miguel Petrirena Murugarren. 5. Iosu Apeztegia Ibarra. 6. Aitor Zugarmurdi Agirre. 7. Josune Otxandorena Andiarrena.

DONAMARIA

HERRIARENGATIK



**Ricardo
Sagaseta
Andiarrena**

2. Santiago Jorajuria Mitxelorena. 3. Jose Miguel Lasaga Telletxea. 4. Angel M^a Larraburu Calzado. 5. Francisco Javier Migeltorena Juanena. 6. Iñaki Telletxea Goñi. 7. Iñaki Baleztena Agerralde.

ELGORRIAGA

BOSTORRAZ



**Jose Miguel
Galarregi
Apeztegia**

2. Jose Antonio Mariezkurrena Ibarra. 3. M^a Cristina Olazar Apeztegia. 4. Juana Josefa Urroz Arruti. 5. Santos Irueta Santesteban.

ERATSUN

Eratsungo Agrup.



**Jose Luis
Eskudero
Bengoetxea**

2. Jose Martin Retegi Deskarga. 3. Julian Retegi Barberia. 4. Jesus Deskarga Bengoetxea. 5. Jose Juan Deskarga Bengoetxea.

IRUÑARRI



**Pedro Antonio
Deskarga
Elizalde**

2. Juan Maria Elizalde Ezkurra. 3. Francisco Mitxelena Bazterrika. 4. Francisco Maria Telletxea Querejeta. 5. Remigio Erason Elizalde.

EZKURRA

IDOIA



**Martin
Gastearena
Balda**

2. Peio Zestau Juantorena. 3. Miguel Maria Lasarte Mariezkurrena. 4. Jesus M^a Mariezkurrena Telletxea. 5. Jose M^a Gogortza Jauregi.

BERTIZ

Bertizko Jaurreriko argazkiak ikusgai uztailaren 20a arte

Berriki erretiratu den Jose Mindegia guardak utzi ditu

ttipi-ttapa

«Bertizko jaurreriko argazki zaharra: Pedro Zigaren legatua» izenburupean argazki erakusketa zabalik dago apirilaren 17tik uztailaren 20ra Bertizko Jauregiko Erakusketa Aretoan. Berriki erretiratu den Jose Mindegia parkeko guardak utzitako argazkiak dira. Bertan, gehien bat, 1898tik 1949ra parkeko nagusi izan zen Pedro Ziga Mayo eta Dorotea Fernandez bere emaztearen bizimodua ageri da. Garai hortan moldatu ziren jauregia eta kapera, eta gaur egun ezagutzen dugun jardina eratu zen. Horretaz gain Aizkolegiko bidea eta kaxkoan dagoen etxea egin ziren. Azken hau 1917an akautu zen. Garai horietako argazkiak izanen dira ikusgai erakusketan. Horietako batzuk, duela bi urte argitaratu zen liburuan ere ageri dira.

Pedro Zigak inguruarena zaintzeko ahale-



gin berezia egin zuen eta hil ondoren, Diputazioari eman zion jaurreria, bere ezaugarriak aldatu gabe mantentzeko baldintzarekin. Gaur egun, Nafarroa turistaren bisita gehien jasotzen dituen lekua da Bertizko Parkea.

UDAKO ORDUTEGIA ETA SARBIDE BERRIA

Erakusketa honekin batera, udako ordutegia izanen dute hemendik

aitzin Bertizko instalazio ezberdinek. Hone-la, parkea 10:00etatik 20:00etara zabalik izanen da; Jardim botanikoa eta Turismo Bulegoa goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara irekiko da eta Naturaren Interpretazio Zentruaren eta erakusketen ordutegia goizeko 10:00etatik 13:30etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara

izanen da.

Bertze aldetik, Bertizko parkean sartu nahi dutenek sarbide berria izanen dute Etxeberria baserri inguruan. Orain arte basora zoaien jendea sartzen zen hortik, baina hemendik aitzin, jardin botanikoa, naturaren interpretazio zentrua edo jauregira sartu ahal izanen da. Bisitariak informazioa eta harrera ere izanen dute sarbide berrian.

BERTIZARANA

B. ELKARTALDEA




Andres Etxenike Iriarte

2. Antonio Hernandez-na Etxepare. 3. Blas Mari Andresena Etxeberria. 4. Aitor Zelaieta Mikelarena. 5. Julian Salaberri Bulman. 6. Iban Urriza Arretxea. 7. Asier Irisarri Martiarena.

BERTIZKO JAURERRIA LIBURUTIK

Pedro Zigaren bizimoduaren berri ematen duten argazkiak dira gehien bat erakusketan ageri direnak.



PAGOLA TXISTORRAREN IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

PIKABEA

Molinero drogerian galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lzpaz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

PINTURAS ERROTAZAR
(Iñaki)
LESKA

• Pintura lanak orokorrean
• Fatxaden berritzea

Estatu zuzentzena konprometuz gabe

SALDIAS

Otsonta eskolako ikasleek iazko filmearen jarraipena grabatu dute

Lanaren gidoia eskolan bertan landu dute

Mikel ILLARREGI

Iazko ikasturtean, Saldiasko Otsonta eskolako ikasleek Bertold Bresch idazle alemanaren olerki lan baten egokitzapena prestatu eta filma grabatu zuten. Ondoren aldeko kritikak aditu zirenez, aurtien iazkoaren jarraipena prestatzea erabaki dute. Honetarako, lanaren gidoia eskolan bertan landu dute eta ondoren, grabaketa lanetarako, Gipuzkoako aktore gazteen laguntza izan dute, tresneriaren erabileran ba-

tez ere. Grabaketa lanak, egun eta toki ezberdinetan egin badira ere, apirilaren 5ean herria zenbait momentutan itxuraldatu zen; fokoak, mikrofono handiak, telebista monitoareak,... eta berrogei lagun baino gehiago lanean. Bertako ikasleaz gain, hainbat guraso, irakasle, ikasle eta bestelakoak azaldu ziren filmaren grabaketa lanean.

Orain gelditzen den bakarra filma berria ikustea, ea noiz den?



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Apirilaren 5ean itxuraldatua agertu zen Saldias, grabazio lanen ondorioz.

SALDIAS

INDEPENDIENTEAK



Pedro Urrutia Grajirena

2. Sebastian Ezkurra Etxekolenea. 3. Jose Ramon Etxeberria Benito. 4. Jacinto Dominguez San Nazario. 5. Julian Erasun Erasun

ITUREN

EA



Jose Mª Gorosterrazu Elizalde

2. Jose Iparragirre Altamira. 3. Miguel Angel Petrirena Azpiazu. 4. Josune Ariztoi Etxepetleku. 5. Mª Cristina Elena Apeztegia Saldias. 6. Eusebio Elizalde Mariezkurrena. 7. Fermin Jose Elizalde Azpiroz.

ZUBIETA

ELUTSA



Jon Mikel Aragon Ibarra

2. Ander Ortuoste Ibarra. 3. Jose Mª Indakotetxea Jaunarena. 4. Josu Otxandorena Midegia. 5. Oinatz Asensio Santesteban. 6. Jaione Telletxea Telletxea. 7. Koro Elizalde Elizalde



Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



DONEZTEBE

Juan Telletxea da Erreka elkarteko presidente berria

Sei urteren ondotik kargua utzi du Pedro Bañaresek

tipi-ttapa

Apirilaren 24an egin zen Erreka elkarteko urteko batzar nagusia eta bertan zuzendaritza batzordea berri zen. Juan Telletxea Urroz izanen da lehendakari berria. Duela 27 urte Erreka elkarte sortu zenetik zuzendaritza batzordeko kide eta azken seieta presidente izan den Pedro Bañarezen lekua hartuko du Juan Telletxeak. Presidenteordea Javier Almandoz izanen da; idazkaria Iñigo Juanenea; diruzaina Pablo Elizondo; eskubaloiko bokala Xixo Larraza; mendikoa Alejandro San Miguel; txirrindularitzakoa Xabier Bañares; atletismokoa Santi San Miguel; judokoa Oskar Mindegia eta aurten sortu berri den pilota ataleko bokala Patxi Altzu izanen da. Dagoeneko, Malerrekako eskuz binakako lehendabiziko txapelketa antolatu eta abiarazi du pilota atalak. Finalak herriko besetan jokatu dira.

Erreka elkarteak aurten izanen duen aurrekontua ere onartu zen batzarrean: 36.429,45 euro. Erditsua pilota atalak eramanen du, 18.000€; eskubaloiak 6.802,95€; txirrindularitzak 356,50€; atletismoak 1.480€; mendiak 2.200€; areto-futbol txapelketak 300€, paleta

ARTXIBOKOA

Pedro Bañaresek 26 urte eman ditu Erreka elkarteko zuzendaritza batzordean, azkeneko seiak presidente gisara.

goma txapelketa irekiak 1.020€, herriko txapelketak 470€, udako ekitaldiek 1.800€ eta beritze gastuetan 4.000€.

Diru-sarrerei dagokienez, udalaren dirulaguntza izanen da handiena, 12.000€ Eguberrietako zozketarekin 4.200€ lortzen dute, bazkideen kuotarekin 4.100, Eskubalo Federaziotik 1.500.

ESKERTZA

Pedro Bañaresek Erreka lagundu duten enpresa, denda eta partikularak eskertu nahi ditu lerro hauen bitartez: «*Gauza aunitz egin dira denen laguntzarekin. Hasieran 135 bazkide ginen eta orain 245 gara. Bada zerbait*».



EA



Ramon Etxebeste Urrutia

2. Jose Cruz Irigoien Irungarai. 3. Vicente Maylin Telletxea. 4. Belen Arregi Albero. 5. M^a Jose Rekarte Belarra. 6. Mercedes Altzuri Bertiz. 7. Xabier Mendioroz Fagoaga. 8. Jose Gallego Bautista. 9. Martin Arretxea Belarra.

PNV



Alfredo Zugarramurdi Zozaia

2. Serafina Grazenea Esain. 3. Pablo Garziarena Juanena. 4. Teresa Gaspar Gutierrez. 5. Jesus M^a Juanena Ariztegi. 6. Jose Antonio Irazoki Irazoki. 7. M^a Belen Retegi Beloki. 8. Jose Fco Javier Larretxea Goñi. 9. Jose Luis Arozena Lazkano

OIHANA

Kokoriko mendiko batzordeak 176.500 euroko aurrekontua onartu du

Kokoriko Mendiko Administrazio Junta 176.471,43 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, berriki onartutako aurrekontuaren arabera. Diru sarrera handiena finantza aktiboen kontutik izanen da, 131.471,40 euro eta transferentzia arrunten bidez 37.406,96 euro sartuko dira. Gastuei dagokienez, 67.938,58 euroko inbertsioak aurrekusi dira.

Erakunde honek, Sunbilla eta Elgorriagako Udalek eta NARBARTOKO kontzejua garai batean zuten mugalarrea kudeatzen du, 181 hektarea inguruko hariztia. Irabaziak udalen eta kontzejuren artean banatzen dira, %40 Sunbillarentzat, bertze %40 NARBARTENTZAT eta bertze %20a ELGORRIAGARENTZAT.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 15etatik 19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328*133346. Faxes: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

Carlos Garaikoetxea Etxenike

abokatua Aseguru orokorrak

© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

INGURUMENA

Belarra ensilatzeko erabiltzen den plastikoa birziklatzeko kanpaina abian jarriko dute

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalek eta Bortziriak eta Malerrekako Mankomunitateek

ttipi-ttapa

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango Udalek eta Malerrekako Bortzirietako Mankomunitateek nekazaritzan belarra ensilatzeko erabiltzen den plastikoa bildu eta erreziklatzeko zerbitzu berri bat martxan paratuko dute laister. Honen inguruko informazioa, erakunde hauetatik nekazariari bidali zaien esku-tizean ageri da.

Hain zuzen ere, azken urteotan gero eta

gehiago erabiltzen den entsilatzeko plastikoa bota edo erretzea pertsona zein animalien osasunarendako arraskategarria dela ikusirik, hauek biltzea eta teknologiberriari esker Nafarroako Carcar-en Montejurrako Mankomunitateak martxan jarriko duen gisa horretarako eremu birziklaltzaileran eramatea erabaki dute inguru honetako udal erakundeek. Beti ere, gero eta zerbitzu hobea ematea, eta ahal

diren hondakin guztiak birziklatze bidean jartzea baita udal eta Mankomunitate hauen egin-kizuna.

Mikel Altzuart, Baztango Udaleko Ingurumen eta Zaborretako Zinegotziak aipatu digunez, «Nafarroako Gobernuko Ingurumen eta Nekazaritza Departamentutik eta Leader Plus programatik momentuz finantziatzen lortu ez badugu ere, gure herrien eta ingurumenaren aldeko apus-



tua egiten dugunez plastikoa hauek bildu eta pales, banku edota erakuntzarako materiale bihurtzeko erabakia hartu dugu udal eta mankomunitateek».

Honela, dei berezia egin zaie plastikoa hauek erabiltzen dituzten nekazari eta abeltzainei, dohaineko zerbitzu hau erabiltzeko zenbait baldintza betez.

Lehendabizikoa udalarekin izena, telefonoa eta helbidea ematea izanen litzateke, hilabete

bakoitzeko lehendabiziko larunbatetan kamioia pasatzeko. Bertze aldetik, belarra entsilatzeko plastikoa bilduko dira bakarrik, hau da dentsitate apaleko polietilenoa, bai boloak, bai zanjak estaltzeko erabiltzen direnak. Beraz, sokak berezi eta ahal den garbiena utzi behar da. Kargatzeko prest multzo batean utzi behar da, beti ere kamioi kozkor bat lumarekin aisa sartuko den tokian.

ARESO

Pilotari gazteak bikain aritu dira Zizurko txapelketan

Mikel Olazabal txapeladun eta Unai Onsalo azpitxapeladun

Juana Mari SAIZAR

Zizur Nagusian lau terdiko pilota txapelketan, lehen mailako jubenetan artean Mikel Olazabal txapeladun suertatu zen finala 18-9 irabazita. Bigarren mailako jubenetan, berriz, Unai Onsalok 16-18 galdu eta azpitxapeladun gelditu zen. Badirudi etorkizun ona dugula pilota munduan.

Pake-Tokiko mus txapelketa

Pake-Toki elkarteko XIV. mus txapelketa jokatzen zen. Hemen ere gazteak garaile: Igor Arraigo eta Iñaki Goikoetxeak irabazi zieten Luis Layana eta Miguel Zabaleta veteranoei.

Egunpasa

Miguel apaiz gazteak eta katekistak egun-

ARESOARRAK



Josefa Antonia Onsalo Treku

2. Milagros Oreja Arraigo. 3. Inmaculada Matias Angulo. 4. Juana Arribillaga Sasiain. 5. Domingo Gereño Marzol. 6. Margarita Caballero Otaegi. 7. Juan Esteban Arraigo Eskiroz.

pasa antolatzen zuten herriko ume eta gaztetxoekin, nahi zuten gu-

BATZARRE



Mikel Baraibar Garmendia

2. Jose Joaquin Artola Arraigo. 3. Antonio Alustiza Arzadun. 4. Miguel M^a Begiristain Madoz. 5. Jaione Olazabal Caballero. 6. M^a Carmen Rezola Zabaleta. 7. Jon Pellejero Zabaleta.

zientziatik irekia. Goizean ibilaldia egin zuten Goiritraino, ogitartekoan jan

HERRIA LANTZEN



Tomas Lozano Barrios

2. Josefa Marzol Tolosa. 3. Txomin Etxarri Muxika. 4. Luis Miguel Nieto Miranda. 5. Trinidad Miranda Funes. 6. Ramon Alguero de Val. 7. Ignacio Bengoetxea Balerdi.

ondoren herrira bueta eta arratsaldean Iruñera zinema ikustera.

GOIZUETA

Milioi terdi euroko aurrekontua onartu du Udalak urte honetarako

Inbertsioetarako milioi bat baino gehiago bideratuko da

Esteban AROTZENA

Hemendik aste gutxira bere karguak utziko dituen udalbatzak prest utzi du aurtengo aurrekontua eta onartuak izango kontuak.

Lehenengo atalari buruz, aurrekontuaz alegia, esan 1.486.790 eurokoa dela osotara eta dirutza honetatik zatirik handiena, milioi batetik goiti, inbertsioentzat izanen dela. Hauen artean aipagarrienak, Alkaintzuriain, Domiña, Domiñazpi, Aitasemegi, Kapero-Rezola, Ataborro eta Atanzalain auzo edo baserrietarako bideak galipotatzen erabiliko litezkeen 360.000 euroak edo Lubineko pilotaplaza konpontzeko aurrikusten diren 204.500 euroak dira.

Inbertsioekin segituz, piszinarako 81.000 euro bideratu dira eta Zaharren Egoitzarako berri, 63.000 euro.

Dena den, Herriko Etxean esan zigutenez, obra hauek aurrekontuetan sartzeak omen



ARGAZKIA: ESTEBAN

Liburuen Nazioarteko Eguna ospatu zuen eskolako Goxali liburutegiak ere. Gustora hartu zituzten neska-mutikoek hainbat argialetzek oparitutak ailegatu berri diren aleak.

du burutuko direnik ziurtatzen, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza beharko baitute hortarako eta oraindik lotu gabe omen dago alde hau.

Gainerako gastuak betiko ataletan sartzen dira, hau da, pertsonalerako 213.000 euro, gastu arruntetarako

166.000 euro, eta udal zerbitzu ezberdinetarako 103.000 euro.

MENDITIK ETORRIKO DIRA DIRUSARRERA HANDIENAK

Dirusarrerak zenbatzea askoz errexagoa da zalantzarik gabe, erdia baino gehiago,

840.000 euro, menditik etorriko baita ohi bezala. Inbertsioen balizko subentzioak 195.000 eurokoak izanen lirateke; mendien hobekuntzgatik 290.000 euro jasoko dira, eta zerga eta tasa ezberdinekin 27.000 euro.

GOIZUETA BIZIRIK



Imanol Legarreta Narbarte

2. Pedro Salaberria Zubiri. 3. Jon Uitzu Lujanbio. 4. Juan Jose Indakoetxea Goizueta. 5. Agustin Eskudero Taberna. 6. Eva Elizegi Narbarte. 7. M^{re} Isabel Salaberria Loiarte.

ARANO

Aurten ere hauteskunde zerrendarik ez

Duela lau urte gertatu zen bezalaxe, aurten ere ez da udal hauteskundetarako zerrendarik aurkeztu Aranon. Beraz, azaroa bitartean udala osatu gabe geldituko da. Ikusi egin beharko da azaroan Herriko Etxean lan egiteko prest dagoen talderen bat agertzen den.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17 • BERA • © 948 630 763



TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANULI, TALLETXEA ZUZUYA

Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60

31770 Lesaka (Nafarroa)

LEITZA

Zu gurekin eta Sahararrekin

Saharako umeak ekartzeko beste kanpaina egingo da udan

Mikel ILLARREGI

Tindouf-eko basamortuan, 1975. urtez geroztik, 200 bat mila erre-fuxiatu bizi da, eta egoera larrian bizi gainera. Egoera larria aipatzen dugunean, beste kanpoko laguntzei esker bizi direla, esan nahi dugu. Jakina da, gure herrietara –Leitzara ere– uda garaian umeak etortzen direla. Hona etortzen direnean, osasun zerbitzua, elikadura ego-kia, munduan zehar beraien egoera zabaltzea eta abar luze bat aipa daitezke helburu moduan. Gure zonaldeko kasuan esan beharra dago guzti honek hamar mila euroko gastua duela eta Nafar Gobernuaren laguntzarik ez dutela jasotzen. Honetan, umeen bidaia, seguroak, garraioak etabar sar-tzen dira.

Honi aurre egiteko boletoak salgai jarri dira eta honekin batera norberak aurrezki kutxetan eman dezakeen dirua. Honetaz gain, oraingo honetan, maiatzaren 16ean, gaueko 10:00etan egingen den jaialdi berezia: "Zu gurekin eta Sahararrekin". Bertan, saharar musika, euskal musika, dantzariak eta bereziki, 14 urtez, Sahararako kanpamenduetan bizi izan den Gurutze Irizarren testigantza. Aurtengo udari dagokionez, Lei-

tzan, Elizondon, Etxalarran, Lesakan, Zubietan, Iturenen, Lekarozen eta Zigan izanen dira.

Antolatzaileen partetik esan, nahitaezkoa dela zuen partaidetza eta eskerrak eman egiten dituzuen ahalegi-nengatik.

Mandoe-giko haizeak

Ederra bezain hai-zetsua gertatu zen, hainbat mendizale edota naturzale taldek antolatutako Mandoe-girako mar-txa. Jakina da, Eusko



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Mandoe-giko ibilaldia egin zutenen arean bazeuden leitzarrak ere.

Jaurlaritzak Parke Eoliko hainbat ezartzeko asmoz, proiektu bat aurkeztu zuela. Horien artean, Mandoe-gi aldean kokatuko zena azaldu zuten. Horrek, iritziak iritzi, Nafarroako Gobernuaren erantzuna ere jaso zuen, Nafarroako lurraldean kokatzen baitzen. Kokapen honen aurka azaltzeko apirilaren

28an aipaturiko mendi mar-txa antolatu zen. Ur-totik abiatuta, Mandoe-gira igo eta ondoren Goi-zuetara jaitsi ziren bil-dutako ehun lagunek.



FLASH

Erreleboa hartu, erreleboa eman

Korrikaren amaieran, Tomas Azpiroz alkateak hartu zuen lekukoa Udalbiltzaren izenean. Dena den, orain laster, froga gogorragoa has-tear dago, udalarena alegia, eta oraingo ha-maika pertsonetako kor-porazioak, beste talde berri bati-berriak gehi-nak- eman beharko dio lekukoa. Hau idaztera-koan, ilegalizazioaren mamuak, bazter guztiak astindu ditu. Amaiera non duen ez jakin arren, bitartean, jakinda ala us-tekabean, hurrengo kol-peak prestatu eta eman, ematen ditu. Demokra-zia-zen izenean, behin eta berriro, herri honek dituen hainbat bitarteko deusez-ten ahalegi-tzen dira, honen lekuko hamaika adibide aspaldiotan. Injustoa benetan...

EA

Juan Jose Lazkano Gomez

- 2. Luis Maria Lizartza Saralegi. 3. Aitor Etxarri Pellejero. 4. Unai Martinez. Barranco Garikoetxea. 5. Jose Antonio Perurena Loiarde. 6. Brigida Azpiroz Sarasola. 7. Antonio Alcaraz Goienetxea. 8. Jose Miguel Sagastibeltza Iturrarte. 9. Gregorio Sagastibeltza Sagastibeltza. 10. Maria Luisa Garro Muñoa. 11. Tomas Erbiti Caballero.

ARALAR

Patxi Saenz Lazkano

- 2. Maria Teresa Barriola Saralegi. 3. Francisco Oronoz Zabaleta. 4. Fermin Barriola Aierdi. 5. Luis Javier Iturrarte Alduntzin. 6. Miguel Maria Olano Irurtia. 7. Margarita Zabaleta Zabaleta. 8. Juan Gabriel Zabaleta Zabaleta. 9. Isidro Otermin Sagastibeltza. 10. Jose Maria Oronoz Zabaleta. 11. Miren Lore Barinaga-Rementeria Zabaleta.

LARRAIN

Maria Angeles Zestau Baraibar

- 2. Jaione Astibia Astibia. 3. Asier Zabaleta Apezetxea. 4. Dabid Anaut Peña. 5. Juan Arangoa Satrustegi. 6. Miren Heleni Zabaleta Urkiola. 7. Tomas Azpiroz Alkoz. 8. Carlos Maria Agirre Zubitur. 9. Kar-mele Lazkano Sestorain. 10. Toribio Miguel Gereño Marzol. 11. Arkaitz Lasarte Olano.

UPN

Silvestre Maria Zubitur Goñi

- 2. M^a Teresa Sukunza Berasain. 3. Pedro Urkiola Zestau. 4. Daniel Mugika Zestau. 5. Felix Gerardo Caballero Azpiroz. 6. Jose Juan Larralde Cerezales. 7. Jose Alvarez Diaz. 8. Miguel Angel Ariztimuño Canflanca. 9. Fermin Azpiroz Martinikorena. 10. Juan Lana Guembe. 11. Micaela Olano Zabaleta.

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Atxuria mendi taldeak astebete gibeleratu du hilabeteko ateraldia

Maiatzaren 18an egingen dute Itsasuko Itzulia

Margari eta Koro

Zugarramurdiko mendizaleak biltzen dituen Atxuria mendi taldeak astebete gibeleratu du hilabeteko egiten duen mendi ateraldia. Jakina denez, Atxuriakoak hilabete bakoitzeko bigarren igandean egin ohi dute beraien txangoa. Baina, aldi hontan, maiatzaren 11 Herri Urrats eguna denez, maiatzaren 18an egitea erabaki dute. Egun horretan Itsasuko Itzulia egingen dute.

Beti bezala, parte hartu nahi duenak aitzinako ortzeguna, maiatzaren 15a, baino lehen eman behar du izena.

Ekainean Urruñara egingen dute sasoi hundertako azken bidaia. Uda-

ko atsedendialdiaren ondoren, irailean Elizondoko Harrikulunka-Urruxka ibilbidea egingen dute.

Elektrifikazio lanak Urdazubiko sei auzotan

Urdazubiko Udalak Elecpor S.A. enpresari eman dio Larrainta, Iribere, Telleria, Leorlas, Dantxarinea eta San Salvador auzoaren zati bateko elektrifikazio lanak, 376.860 euroren truke. Udalak azken bazarrean eman zituen lanak eta enpresak zortzi hilabete izanen ditu lanak akitzeko.

ARTXIBOKOA

Atxuria mendi taldea Ezpeleta bidean, Arrano Mendi urrunean.

ZUGARRAMURDI

AKELARRE



Lazaro Dainziart Iribarren

2. Jose Antonio Marturet Arkauz. 3. Juan Maria Cordoba Elizegi. 4. Faustino Jesus Etxabe Ladera. 5. Izaskun Agirre Ganboa.

Zug. ELKARTEA



Evaristo Mentaberri Mihura

2. Juan M^a Elizalde Ezkurra. 3. Francisco Mitxelena Bazterrika. 4. Francisco M^a Telletxea Querejeta. 5. Remigio Erasun Elizalde.

URDAZUBI

URTUXIME



Andres Diharasari Organbide


2. Santiago Villares Otegi. 3. Jose Maria Ariztia Plaza. 4. Gregorio Irigoien Dessein. 5. David Bidaurre Elizegi. 6. Juan Ramon Otegi Laurezena. 7. Martin Arrieta Tapia.



KAPRITXO
Arropa eta opari denda
© 649 450249 • LEITZA

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxe: 948 580804 - ELIZONDO

BAZTAN

Herrietako alkate berriek ardura eta baliabide gehiago eskatu dituzte berriz ere

Autonomia eta gestio ahalmen gehiago eskatu zuten Junta Generalean

ttipi-ttapa

Joan den urteko abendu aukeratu ziren herrietako alkate eta juntakide berriek lehen aldiz bere lekua hartu zuten apirilaren 22an egin zen urteko lehen Junta Generalean. Herri aunitzeko alkateentzat, lau kuarteletako juntakideentzat eta mendi batzordekoentzat estreinaldia zena, Balleko Udaleko alkate-zinogotzientzat azken Junta Generala izan zen. Patxi Oiartzabalek guziak agurtu zituen, alkatetza utziko baitu.

Junta Generalean ohiko gaiak eztabaidatu ziren, gehien bat herri lurrekin, irazelaiekin eta gisakoekin lotutakoan. Dena den, herrietako alkateek baliabide gehiago eskatu zituzten 15 herriak hobeki kudeatu ahal izateko.

Azienda hondakinak ur-depuradoran

Nilsak Balleko Udalarari jakinarazi dioenez,



Virginia Aleman Arrastio

2. Florentino Goñi Telletxea. 3. Santiago Aldako Aleman. 4. Remigio Lizasoain Adansa. 5. Iñigo Iturralde Elizetxe. 6. Bernardo Amiano Magirena. 7. Carlos Garaikoetxea Etxenike. 8. Jose Javier Bazterrika Mutuberria. 9. Fernando Astiz Lasa. 10. Rafael Agerre Almanoz. 11. Agustin Olabe Oskaritz. 12. Santiago Ibargarai Telletxea. 13. Patxi Oiartzabal Irigoien.



Leopoldo Jaen Sobrino

2. Jose Antonio Fco Bergara Sanzberro. 3. Begoña Sanzberro Iturriria. 4. Ignacio Agerrea Almenar. 5. M^a Isabel Biddart Santxotena. 6. Anastasio Nagore Garralda. 7. Antonio Bengoetxea Iturriria. 8. Antonio M^a Irigoien Sarratea. 9. Angel Goñi Mitxelena. 10. Ana M^a Elizalde Urmeneta. 11. Juan Jose Etxeberria Azkarraga. 12. Fco. Javier Rekarte Urrutia. 13. Gregorio Oiaregi Arriaga



Xabier Ballarena Iturburua

2. Isaac Rekalde Irigoien. 3. Maria Antonia Garde Saharrea. 4. Peio Etxandi Juanikotena. 5. Miren Elurre Iriarte Banaez. 6. Asier Maritorenna Azkarate. 7. Nerea Iturriria Meoki. 8. Jose Luis Retegi Iturbide. 9. Oianko Garde Jaunsaras. 10. Jesus Mari Prim Ustariz. 11. M^a Pilar Migeltorena Etxenike. 12. Miguel Mortalena Oteiza. 13. M^a Resurreccion Elizagoien Etxegarai.



Martin Jose Zabalza Arregi

2. Fco Javier del Castillo Diaz. 3. Juan Manuel Sebastian Perez. 4. Santiago Sebastian Urdin Oneka. 5. Amaia Villanueva Fernandez. 6. Fermin Palma Aginaga. 7. Sagrario Requetebitate Urzai. 8. Francisco Benitez Diaz. 9. Mercedes Palomares Zunzarren. 10. Fco Javier Latorre Martinez. 11. Koldo Paulo Lasa Aristu. 12. Asun Apestegia Jaurrieta. 13. Juan Jose Lizarbe Baztan

Baztango ur-zikinen depuradorara azien hondakinak ailegatu dira hasiera-hasieratik. Egoera horrek okertze

bidea hartu du eta otsailean bi aldiz ataskoak izan dituzte hondakin hauen pilaketagatik. Nil-saren arabera, honen

ondorioz zenbait arazo sortzen dira, instalazioaren errendimendua kaltezen dutenak. Azien saren hondakinak sane-

amendu sare publikoetara botatzea debekatzen du legediak eta honen berri ematea eskatzen dio Udalarari.

DAGUIRRE
arkitektura

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

649 95 94 14

NAFARRA O. 1. 48100

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

onegin
Herbodieterika Ekodenda

- ZERBITZUAK:
- DIETISTA
- NATURISTA
- PRODUKTU EKOLOGIKO
- PRODUKTU NATURALAK
- PRODUKTU ARTISAUAK

Jose Urzila, 36, Ibañeta • ELIZONDO
748 581 812

LARRALDEA
SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121

BAZTAN

Nafarroako Gobernuak 28.000 euro bideratu ditu azpiegitura lanetarako

Agozpeko zabortegia itxi eta Gartzainen argiak jarriko dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamenduak onartutakoaren arabera, 28.000 euro bideratu dira 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura planaren barnean zeuden bi lan egiteko. Gartzainen, herriko sarbideetan argiak paratuko dira, N-121-B errepidea eta Ariztegi arteko bidegurutzean, baita Elizamendiko bidegurutzean ere. Lan honen aurrekontu osoa 16.306 eurokoa da eta Toki Administrazio Departamenduak 11.535 euro jarriko ditu.

Bertze lana, Elizondotik Beartzungo bidean dagoen Agozpeko zabortegia behin betikoz ixtea izanen da. Bertan dauden zaborrak kendu, lurra bota, belarra erein eta zuhaitzak

sartuko dira. Lanaren aurrekontua 18.078 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak 16.433 euro jarriko ditu.

Azken lan hau dagoeneko emana du Balleko Udalak. Sunbillaiko Sasoi Eskabazioak enpresak eginen du 13.602,70 euroren truke.

UTZITAKO ARGAZKIA

**Irakur zaletasuna suspertzeko asmoz, Nafarroako ikastolen elkar-
teak azken 5 urtetan, JUUL kanpaina bultzatu du ikasleei gehien gustatzen zaien liburua eta ilustratzailea aukeratzeko. Baztan Ikastolak parte hartu du kanpaina honetan. Hauteskundeak hurbiltzean hauteskunde mahaia osatu zen eta ikasleek boza eman zuten.**



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko "San Francisco Javier" Ikastetxe Publikoko gela guztietan interkulturalitateari buruzko gaia landu zuten martxoan. Horretarako gela bakoitzak, eskolan dituzten ikasleen herrialdeetatik bat hartu eta arlo guztietan lan egin dute: Hizkuntza arloan, Matematikan, Ingurunean, Musikan, Plastikan, etabarrean. Egindako lanarekin, apirilaren lehenengo astean, Eskolako Jantokian erakusketa antolatu zuten. Esperientzia hau denontzat oso interesgarria eta aberatsa izan da, eskolatik jakinarazi dutenez.





asnap.me
servicio asociado de la gestión y asistencia empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Gortiaok
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igesterok...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Gortiaok asesoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DONOSTIA
 Itza Semerik, 4. Solairu
 Tfno: 948 411822 Tfno/Fax: 948 411418
 web: herriak@asnappme.com

ELIZONDO
 Sastres, 31. Solairu
 Tfno/Fax: 948 580 586
 elizondo@asnappme.com

LEZUZA
 Sastres, 1. Solairu
 Tfno: 948 262208 Tfno/Fax: 948 262194
 lezuza@asnappme.com



BAZTAN FUNERARIA

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• © 948 580373 • 608 776176

SENPERE



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Besainka lehiaketako pilotazaleak.

Hogeigarren Herri Urrats besta ospatuko da igande honetan, maiatzaren 11n aintziran

ESAIT euskal selekzioko besta ekainaren 1ean izanen da Gantxikin

Franck DOLOSOR

"Hogoigarrenean, sa-soin ederrean" leloarekin, hogoigarren Herri Urrats besta ospatuko da maiatzaren bigarren egunean aintziraren inguruan. Goiz goizetik 4,5 kilometroko ibilbidea irekiko da urratsez urrats herria eta ikastolak laguntzeko eta 11etan ospatuko den ekitaldi ofizialean besta huntako sortzaileak omenduko dituzte. Bi metrako harria ezarriko da aintziraren bazterrean eus-

kararen aldeko bestak 20 urte betetzen dituela oroitarazteko. Sagarroi, Gozategi, Zea Mays, Labrit eta Bide Ertzean bezalako taldeek kontzertuak eskainiko dituzte. Bertsolariak, trikitalariak eta dantzariak ere Senperen egonen dira bazterrean aleratzeko. Berrikuntzetan, 600 metra luzeko tirolina ezarriko da lakuaren gainean abenturazaleentzat eta zozketaren lehen saria Tailandiarako bidaia iza-

nen da. Bertzalde, Herri Urrats bezperan Xu-



Betroinak Senperen egon ziren bazko igandearekin.



Peronne jaun andereak harri-bitxiko eztaiak ospatu dituzte apirilaren 20an.

beroko "Lau-Buru" dantza eta kantu ikusgarria eskainiko da Gantxikin. Aurtengo irabaziekin, Iparraldeko ikastolak eta Seaska lagunduko dira beti bezala eta bereziki Ziburu eta Donaixtiko kolegioen eraikuntza berriak.

Aintzirarat hurbiltzeko autobusak erabiltzea gomendatzen dute Herri Urratseko antolatzailleek.

Bertzalde, ekainaren 1ean, euskal selekzioren aldeko besta izanen da Gantxikin, ESAITek antolatua.

ehnelur
euskal herriko nekazarrien elkartasuna

**Mota guztietako gasolioa
Baserrietarako**

Mikel 606 340630

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN



© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

AZKAIN

Herriko kontseiluak zailtasun handiarekin bozkatu zuen budjeta

Auzapezak bi delegazio aldaketa egin zituen eta Atletismo pistarik ez egitea erabakia izan zen

Ihintza, Angela eta Eneko

Azken epea apirilaren 15an finkatua zen iparraldeko herrientzat budjetaren bozkatzeko. Azkainen 3 aldiz bildu ziren hautetsiak herriko aurrekontuen bozkatzeko. Azkenean apirilaren 15ean berean lortu zuen gehiengoaren adostasuna Laduxe Auzapezak. Ondorioak laurriak izan zitezken herriarrentzat hala ez bazen gertatu, legeak baitio halakotan prefetak duela budjeta bere gain hartu behar.

Egia erran sorpresa sortu zuten auzapezaren zerrendako 4 hautetsiek budjeta ez onartzeko erabakia azaldu zutenean martxoaren 28an. 4 horien erranetan hautua «ez zen estrategikoa» izan bai zik eta «desadostasun baten adierazteko» parada, ez baitzen beren

iritzia aski kondutan hartua. Baina kasu hortan ardura handia hartzen zuten beren gain Charrier hautetsiaren arabera, jakinez «Auzapez aldaketa baten egiteko aski zela budjeta ez bozkatu izatea». Laduxek bere harridura adierazi zuen, Goyenaga axuentari erantzunez ez zela lan bilkuretan agertu ere.

Azkenean bere zerrendakoek sustengua ez baitzioten gehiago eskaintzen, Laduxek oposiziokoekin osatu zuen egun hartan gehiengo berri bat. Baina hortarako erabakiak hartu behar izan zituen, bi delegazio kenduz Goyenaga eta Tapia axuentei (oposizioko bi hautetsik hartu zituzten beren gain) eta atletismo pistarik ez egiteko hautua eginez. Egun hartan okerrera baztertua izan zen baina ez dai-



ARGAZKIA: MAIDER LADUXEK UTZIA

Plazan ostatuko palantxa lehiaketa

Plazan ostatuak urte guziz bezala palantxa lehiaketa antolatuko du aurten ere. Gero eta arrakastatsua goa da Plazako torneoa, 3 zerrenda martxan ezartzeko asmoa dute gizonentzat, bato adinekoentzat, berte bat emazteentzat, eta gaztetxoek ere berena izanen dute bikote kopuru aski handia aurkezten bada. Argazkian, 2002ko gaztetxoeren zerrendako lehiakideak ageri dira.

teke erran gehiengo berri bat sortu denik kontseiluan, ikusi beharko oraitik aitzina adostasun horrek noiz arte irauten ahalko duen.

Errugbian Sara ezin gaudituz

Herriko errugbilariek ez zuten garaipena lortu erdi finalean Sararen kontra apirilaren 13an. 28 eta 5 galdu zuten Axularren herrian. Maila igoera huts egin zuten beraz egun hartan, Sarak aldiz ez, eta 3. zerrendako finalean ez dute parte hartuko azkaindarrek.

Hala ere ohorezko finala jokatu dute maiatzaren 11n, Herri Urrats egunean, Arrangoitzen Salbatarreren kontra.

Sebastien Gonzalez

Sebastienek bi partida egin zituen banazkako xapelketan. Lehen aski errex irabazi bazuen Armendaritzen kontra, bigarrena xapelketaren favoritoaren kontra galdu zuen 22-5. Sebastienek ez zuen gauza haundirik egiten ahal izan Aimar Olaizolaren kontra. Goizueta-rrak laster atxeman zi-

tuen Azkaindarraren hutsak nun ziren. Pilota gehienak eskuin aldean ezarri egin zituen tanto gehienak.

Saski Baloia

Saski baloian gizonak maila batez igotzeko segurtatuak dira jadanik. Departamenduko finala ere jokatu dute maiatzaren 18an.

Martintxo 23an

Martintxo taldeak gomitak luzatzen die kantuzale guzietan kantatzerat etortzeko maiatzaren 23an herriko ostatu batean.

Okindegia
Jatetxea



Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artizana, egunekoa eta txapata
- JATETXEAN**
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilak erretako jakietan

Enlaxatuz gero, bidaltza argalaz eta, gero gero!

Ordaki industrialdea - Tfnoa: 948 45 34 03 - 31113 ARIZKUN







SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
 (Sarrera Beratik)

SARA

Maiatzaren 10ean, Herri Urrats bezperan, Gaztetxearen kontzertua iraganen da

Sarako errugbi taldea, hirugarren mailako finalera iritsi da

Joana eta Saski

Maiatzaren 10ean, aurten Gaztetxeak antolatuko du urte guziz egiten den Herri Urrats bezperako kontzertua. Gazteek saratar ainitzen laguntza ukanen dute gau hortan dena ongi iragan dadin. Gaueko 20:00etatik goiti, aperitifa denboran gaiteroak izanen dira plaza alaitzeko. 21:00etan kontzertua hasiko da ondoko taldeekin. AK, Iparraldeko metal taldea; KEN 7 Hegoaldeko talde ezaguna; Itsasuko Piarres talde disko-metala (70. hamarkadako soinuak oraino tendentzietan); Barricada, Txantrea eta Euskal Herriko talde mitikoa; eta bukatzeko dantzaldia Zipotz Ero taldearekin. Zatozte denak gure herriko Gaztetxea sustengatzera!

Sarako errugbi taldea finalean

Nahiz eta zortzi puntuko berantarekin hasi zuten partida, lehen fa-



ARGAZKIA: XABI BERROUET

Azkaineri Animainean 28 eta 5 irabazi ondotik, hirugarren mailako finalean izanen dira Sarako Basurdeak igande honetan. Urruñan jokatuko dute Kanboren kontra. Jokalariek espero dute ainitz saratar hurbilduko dela Urruñara eta garaipenarekin herrirat itzultzea.

sean Azkainen galdu baitzuten 17 eta 9, gure errugbilariek garaipena eta finalean sartzea lortu dute. Jendea harritua gelditu da saratarren animoa ikusiz zelaira sartzean. Laurden baten buruan, beren beranta bi entseguekin gaitzuten. Azkenean, bigarren

atsedenadiaren ondok hirugarren entsegu bat emanez partida bukatu zen, 28 eta 5. Gure mutilek partida eder bat jokatu dute eta agian berdin egiten dute Kanboren kontra igande honetan, maiatzaren 11n, Urruñan iraganen den finalean! Hortako, espero dute ainitz saratar

hurbilduko dela Urruñara!

Saratarrak Union Basqueko txapelkun

Zuraiden, apirilaren 13an iragan diren Union Basque esku huska txapelketako finalean, adinetakoen mailan, sara-

tarrak nagusi dira. Pierre Arotzarena eta Frédéric Barnetche, Iriquin eta Sansberro itsasuarra gaitzuten dituzte partida 40-37tan utziz.

Nahiz eta hamar puntu berantarekin hasi, partidua gogorra eta ederra izan da eta azkenean, Pierre eta Frédéric-ek txapela Sarara ekarri dute. Aupa zuek!

Dantzari ttiki Eguna maiatzaren 8an

Aurten Dantzari Ttiki Eguna maiatzaren 8an iraganen da Pauen, eta beti bezala Sarako Zazpiak Bat taldeak parte hartuko du.

Joko Berri txapelketako finalak

Joko Berriko finalak ere ortziral honetan, maiatzaren 8an iraganen dira eta ondotik zikro jatea izanen da. Izenak emaitako deitu telefono zenbaki hauetara: 05 59 54 29 69 edo 05 59 54 24 96.

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

NZ

z tz r
rr s
rr c
k n 7

s m tz r n 10 n

DE IN
TUPA

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

**MENDIALDE
Jatetxea**

AMAIUR • © 948453060



EZKONTZAK

Florencio Ziauriz Ariztegi eta **Elixabete Telletxea Juanenea**, Alkoz eta Beintza-Labaiengoa, martxoaren 29an.
Santiago Migeltorena Etxenike eta **Elena Telletxea Bidegain**, Berroeta eta Elizondokoa, apirilaren 12an.
Christophe Ténét eta **Oihana Céline Claverie**, Azkaingoak, apirilaren 4an.
Ignacio Maria Mariezkurrena Mariezkurrena eta **Maria Lourdes Santesteban Santesteban**, Eratsun eta Zubietakoa, apirilaren 12an.



SORTZEAK

Goiatz Etxeberria Iparragirre, Iruñean, apirilaren 13an.
Jon Girard, Sarakoa, martxoaren 24an.
Mikel Etxarte Leitza, Etxalarkoa, apirilaren 11n.
Mikel Gorostidi Jaimerena, Arizkungoa, apirilaren 3an.
Irati Mikelarena Igoa, Zigakoa, martxoaren 27an.
Urki Neol Burlada, Arizkungoa, apirilaren 14an.
Aritz Elizondo Urrutia, Lekarozkoa, apirilaren 18an.
Unai Ballarena Telletxea, Elizondokoa, apirilaren 19an.
Unax Altsua Apezetxea, Goizuetakoa, apirilaren 16an.
Alazne Mariezkurrena Sansiñena, Aurtizkoa, apirilaren 15ean.
Lorea Ourdanabia, Azkaingoa, martxoaren 18an.
Mickael del Puerto Goiburua, Berakoa, martxoaren 31n.
Lorena Perez Cueva, Berakoa, apirilaren 10ean.
Idoia Goia del Moral, Berakoa, apirilaren 14ean.
Leire Ruiz Altzuguren, Berakoa, apirilaren 16an.
Alaitz Gortari Alkain, Irungoa, apirilaren 29an.



HERIOTZAK

Santiago Ibarra Espelosin, Etxalarkoa, apirilaren 15ean, 82 urte.
Carmen Diaz Atienza, Elizondon, apirilaren 10ean, 82 urte.
Maria Goienetxe Gartxitorena, Almanozkoa, apirilaren 10ean, 86 urte.
Petra Elizetxe Olaetxea, Lekarozkoa, apirilaren 16an, 81 urte.
Juan Iturbide Maia, Elizondokoa, apirilaren 19an, 83 urte.
Vicenta Sukunza Urkiola, Leitzakoa, apirilaren 18an, 89 urte.
Alain Colbeau, Azkaingoa, martxoaren 22an, 58 urte.
Robert Jacques Petit, Azkaingoa, martxoaren 30ean, 80 urte.
Jeanne Larronde veuve Ameztoi, Azkaingoa, apirilaren 3an, 100 urte.
Martin Otxoteko, Azkaingoa, apirilaren 14ean, 89 urte.
Fernande Paule Jeanne Chevalier veuve Lourtet, Azkaingoa, apirilaren 19an, 90 urte.
Ignacio Lazkanotegi Arribillaga, Berakoa, apirilaren 16an, 81 urte.



G U T N T I T L E
I CHE
 GESTI NES F NE ES EL N TE, S.L.

TANATORIO BAZTANDARRA
 Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
 Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan
 eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959
 ☎ 900 704704



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

BORTZIRIETAKO AHOZKO TRADIZIOA GIZARTERATZEKO PROIEKTUAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA KONTRATUA, HITZARTUA ETA PRENTSAN IRAGARKIA JARRITA

Xedea: Bortzirieta ahozko tradizioa gizarteratzeko proiektuak kontratatzea. Zehazkiago, liburu dibulгатiboa eta CD Romaren irudiak testuak eta maketazioa egin beharko dira.

Aurrekontua: Kontratuaren aurrekontua 14.000 eurokoa da guztira, BEZ barne.

Lana egiteko epea: Lana 6 hilabeteko epean bukatu beharko da.

Prozedura: Klausula hauetan aipatzen diren lanak Nafarroako Administrazio Publikoaren Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen arabera esleitu dira, laguntza kontratu bidez, prozedura hitzartuari jarraituz eta iragarki bidez.

Proposamenen aurkezpena: Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bortzirieta Euskara Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, 2003ko maiatzaren 30eko 15:00ak baino lehen.

Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago Bortzirieta Euskara Mankomunitateko egoitzan, Aratzako Herriko Etxean.

Arantzan, 2003ko apirilaren 14an
 Jose Ramon Amoros Oskotz
 Bortzirieta Euskara Mankomunitateko lehendakaria



Eskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da

Rural Kutxako
 3008 0080 53
 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea

ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

PILOTA

Eskualdeko ordezkariak bikain Belatek antolatutako Ligan

Txaruta lehendabizikoa izan da taldeka eta Leitzako Aurrera bigarren

Aitor AROTZENA

Belate pilota elkarteak antolatutako ligaren finalak jokatu ziren apirilaren 12an Zizur eta Barañainen eta emaitza bikainak eskuratu zituzten eskualdeko pilotariak. Saillkapen orokorrean, Baztan eta Mallerrekako pilotariak bilzen dituen Txaruta elkarteak izan zen onena, 30 punturekin eta Leitzako Aurrera bigarren 13 punturekin. Berako Gure Txokoak ere garraipen bat lortu zuen, 19 urtetik goitiko helduen mailan.

Adinean behetik goiti hasita, 7-8 urteko ttikien lehendabiziko mailan, Zugarralde elkarteak Agirre eta Espinalek 18 eta 12 irabazi zieten Txarutako Untxalo eta Elizalderi. Adin honetako bigarren mailan, Txarutako Andueza eta Jaenek 18 eta 16 irabazi zieten Sutegiko Gastaminza eta Loreari.

9 eta 10 urteko umeen lehen mailan, Gure Pilota elkarteko Ijurreta eta Navarrok 18 eta 6 irabazi zieten Txarutako Arizmendi eta Apeztegiari. Adin honetako bigarren mailan, Txarutako bi bikoteen arteko finala jokatu zen. San Martin eta Zestauk 18 eta 10 irabazi zieten Oskoz eta Agestari. Hirugarren mailan, berriz, Larraungo Aldaregia eta Hernandorenak 18 eta 12 irabazi zieten Aurrerako Jaunarena eta Be-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Ttiki-ttikitatik ari dira pilotan inguru honetako neska-mutikoak eta gero hori nabari da lortzen dituzten emaitzatan.

lokiri.

11 eta 12 urteko kimuen lehen mailan, Aurrerako Jaunarena eta Aranburuk 18 eta 16 irabazi zieten Gure Pilotako Antsotegi eta Arañari. Kimuen bigarren mailan Larraungo Ihaben eta Barberenak 18-12 irabazi zieten Araitz Beteluko Garmendia eta Pradosi eta hirugarren mailan, Oihantzabal elkarteko Martikorena eta Telletxeak 18 eta 5 irabazi zieten Lagunak taldeko Otamendi eta Zunzarreni.

13 eta 14 urteko haurren lehen mailan, Txarutako Loiarte eta Jauneneak tantu bakar batez galdu zuten Pilotajaukuko Etxeberria eta Iturriotzen kontra, 17 eta

18. Bigarren mailan, berriz ere Txarutako arteko finalean, Mindegia eta Irigoienek 18 eta 3 irabazi zieten Irigoien eta Jauregiri. Hirugarren mailan, Tafallako Ojer eta Caballerok 18 eta 16 irabazi zieten Bi Haizpeko Ibero eta Rojori.

15 eta 16 urteko kadeteen lehen mailan, Txarutako Arregi eta Ezkurak 18 eta 10 irabazi zieten Auñamendiko Retegi eta Orozi. Bigarren mailan, Aurrerako Nieto eta Belokik 6 eta 18 galdu zuten Lagunak elkarteko Perez eta Iragiren kontra. Hirugarren mailan, berriz, Zugarraldeko Mertxan eta Jimenezek 18 eta 7 irabazi zieten Pilotajaukuko Maiza eta Ruiz Be-

ginori.

17 eta 18 urteko gazteen lehen mailako final gogorrean, Txarutako Urtasun eta Erasok 22 eta 21 irabazi zieten Aurrerako Ontsalok eta Jakari. Bigarren mailan, Lagunak taldeko Saldias eta Otazuk 22 eta 18 irabazi zieten Larraungo Lopetegi eta Barberenari.

19 urtetik goitiko helduen lehen mailan, Berako Gure Txokoako Zerezo eta Irastorzak 22 eta 5 irabazi zieten Aurrerako Olazabal eta Barandaineri. Bigarren mailan, azkenik, Auñamendiko Castello eta Villanuevak 22 eta 10 irabazi zieten Pilotajaukuko Gartzandia eta Ubedari.

FLASH

Inaxio Perurenak

265 kiloko harri errekangularra bizkar gainean berdindu zuen apirilaren 20an Atxondon, eta orain arte 19 urterekin beste inor egin gabe zegoena egin zuen. Leitzarrak otsailean egin zuen lehen ahalegina harri horrekin Euskadiko Sei Orduetan, baina orduan ez zuen helburua betetzea lortu. Orain dela hilabeterako zuen bigarren ahalegina egiteko asmoa, baina bere burua prest ikusten ez, eta atzeratu egin zuen. Atxondon, ordea, ez zuen hutsik egin. Markak lasaitu ederra eman ziola aitortu zuen Inaxiok: «Berotze arietak egiterakoan-eta, buelta asko ematen dizkiozu buruari. Donostian marka ez lortzeak us-te baino min handiagoa egin zidan, baina gaurkoan gauzak ongi aterara zaizkit» esan zuen.

Jone Fagoagak

Espainiako Skeet Olinpiko txapelketa irabazi zuen apirilaren 12an Valladoliden. Duela bi urte ere txapelketa hau irabazi zuen, baina joan den urtean bigarren izan zen. Sorbaldan duen lesiotik erabat osatu gabe dago oraindik Jone Fagoaga eta hori nabaritu zen txapelketan. Lehendabizikoa bi tiraldietan bere maila eman zuen, baina hirugarrenean jautsi egin zen. Ez ordea, txapela ez irabazteko haina. Sorbaldatik behar bezala errekuperatzen baldin bada, maiatzean Presidente Kopan parte hartuko du Jone Fagoagak Valladoliden eta ekainean Granadan egiten diren nazioarteko bi probetan hartuko du parte.

PILOTA

Abel Barriola eta Aimar Olaizola buruz buruko txapelaren bila



Finalerdiko ligaxka elkarren kontra jokatuz hasi dute

Aste hondar honetan hasi da buruz buruko pilota txapelketa nagusiko finalerdiko ligaxka. Lehendabiziko partidaren eskualdeko bi ordezkariak, Abel Barriola leizarra eta Aimar Olaizola goizueta-rra aritu dira elkarren kontra. Gaur egungo txapeldunak ez zuten lan handirik egin finalerdietan sartzeko, lautan utzi baitzuen Koka. Goizuetarrak, aldiz, hiru partidua irabazi behar izan ditu finalerdietan sartzeko, baina honek ere espero baino arazo guttiago izan zuen. Bost tantutan utzi zituen Imaz eta Gonzalez eta Patxi Eugik bederatzia egin zizkion.

Finalerdiko lehen jardunaldiko bertze partidaren, Ruben Beloki eta Patxi Ruiz aritu ziren. Belokik Asier Olaizola goizueta-rra kanporatu zuen, 22-14 irabazita.

Orain arte ikusita-koaren arabera, Barriola eta Olaizola izaten ahal dira faborito, beti ere Belokiren bai-menarekin eta Ruizek nerbioei nola eusten dien ikusi aurretik. Finalerdiko bigarren jardunaldian, aste hondar honetako galtzaileak alde batetik, eta irabazleak bestetik, ariko dira elkarren kontra maiztaren 17 eta 18an. Finala ekainaren 15ean jokatuko da.

U E Z K I E T N E S E Z I L I S T K

U L K U T X K
I N E T S I -
F N K



r n, zur f n k ut
mu m n u sk t sun .



Z r n l z n r , r n u z u z u r l n r s -
F n u r l k u x r s t z k s e s u n
z r n r n u .
E t n e z u r n r t s r r n t r r t s u n k
h n n t r t z k k u u r u t u
u r z l e t r f s n l t l e s k l u
r e n l m t .

n k z s
t z k z u z u r f n k
u r l k u t x r s t u -
f s k l k .

www.rur.lt.es.m

G r r n i z t s u
z u z r

NAFARR AK
RUR L KUTXA

AGENDA

egunez
egun

MENDI IBILADIAK

BAZTAN

Maiatzaren 11n Herri Urratsera joanen dira Baztango Mendigoizaleak. **Maiatzaren 18an** Abartanera ibilaldia.

ZUGARRAMURDI

Maiatzaren 18an Itxasuko Itzulia egingen du Atxuria mendit taldeak.

BERA

Maiatzaren 18an Berako Itzulia antolatu du Agerra mendit taldeak. Xehetasunak 9. orrian.

KINTO BAZKARIAK

LESAKA

Maiatzaren 17an 1973 eta 1974an sortutako kinto bazkaria. Poteoa 13:00etan Koskilan. Bazkaria 14:30etan Kattun. Txartelak: Haizegoa eta Koskilan, 20 euro. Maiatzaren 14a baino lehen.

BILERAK

LESAKA

Maiatzaren 16an Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen batzar orokorra Alkaiagako Enpresa Zentruan, 19:30etan. Bilera irekia izanen da. Euskararen egoera Bortzirietan eta euskararen normalizaziorako Bortzirietan dugun azpiegitura aztertuko dira.

KONTZERTUAK

SARA

Maiatzaren 10ean Gaztetxeak antolatutako Herri Urrats bezperako kontzertua. Xehetasunak 26. orrian.

OSPAKIZUNAK

SENPERE

Maiatzaren 11n Herri Urrats. Xehetasunak 24. orrian.

TELEBISTAKO TXOKOA



EZKONTZEN ONDOTIK MODA

Udaberri eta udako janzkerak ortzegunero ttipi-ttapan


Azkeneko asteetan «Ezkontzeko prest!» saioa ikusgai izan da ttipi-ttapa telebistan, ortzegunetako albisteen ondotik. Bertan, ezkontzaren ordurako inguru honetako komertzio ezberdinen eskaintza ikusgai izan da. Bada, hemendik aitzin, egun eta tenore berean, udaberri eta udako modaren inguruan eskualdeko jantzidenda, oinetakodenda eta osagarri ezberdinak eskaintzen dituzten komertzioen eskaintza ikusteko modua ere izanen da. Azkeneko tendentziak, gehien eramanen diren telak, moda-modako zapata eta sandaliak, barreneko erroparik polit eta erakargarriena... hori guzia eta ber-

tze gauza aunitz gehiago ikusi ahal izanen dituzue ortzegunero, berrien ondotik.

ERREPORTAI INTERESGARRIAK

Bertzalde, orain arteko ildoari segituz, erreportai interesgarriak etxeko ikusteko modua ere izanen duzue. Inguru honetan, lehengaiak erabiliz produktu bikainak eskaintzen dituzten lantegi ugari badira. Horietako bik, Berako Conservas Martikok eta Elizondoko Malkorra goxotegiak nola lan egiten duten erakutsiko dugu. Gure mugetatik urrun joanez, Jon Abril eta Asier Gogortzak Txinara egindako bidaiaren berri ere emanen dugu.

DISKAK



«Txikitxuterik»

IKER GOENAGA

ELKAR, 2003

Iker Goenaga zizurkildarra Euskal Herriko musikaren erreferentzia bat da jadanik. 1993. urtean disko bat konpartitu zuen Maixa ta Ixiar taldearekin eta harrezkeroztik hainbat diskotan zein zuzeneko proiektutan kolaboratzaile izan da. Egund, Oskorri taldearen partaide dugu. 1998an bakarkako lehen diska kaleratu zuen («Soinugorri»). «Txikitxuterik» bere bigarren diskoa da beraz, musikaren haizetara zabalduriko bihotzaren isla, udazkeneko basoaren usainez beteriko doinuak, freskoak, naturalak, mami-tsuak. «Txikitxuterik» egilearen haize-arrosa dugu; errealitateen, sentimenduen eta gogoaren bidegurutzea, non iparrek hotza, hegoaren beroa, sartaldearen hezea eta sortaldearen lehorra bildu ohi diren. Disko honetan kantu onak, sinpleak, eskurakoiak eta sendoak bildu ditu.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Apirilaren 18tik 25era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 23,00 €

Zerri gizona
0,94 € kiloak.

Zerramak:
0,46 € kiloak, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,16
1.koa 3,04
2.koa 2,95

Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,22
1.koa 3,10
2.koa 2,99

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 265,00 € eta idixkoak 255,00 €

Nabarrak: urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,75/2,90
Zaldi-behorrak: 1,75/1,86

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,25/5,55
8-10 kilokoak: 4,30/4,65

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Mobbing

Mobbing-a «modan» dago azken aldian. Denok aditu dugu zerbait mobbing-az edo laneko jazarpen moralaz, baina aunitzek laneko estresarekin edo jazarpen sexualarekin nahasten dute...

Egitan mobbing-a zer den jakiteko edo ideia argiagoa izateko, bere ezaugarrien eta ondorioen ikuspegi orokorra ematen dugu.

Mobbing-a lankideen artean edo lan hierarkian goitiago edo beheitiago daudenekin jarra negatiboa izatea da. Jarra horren ondorioz, kaltetuari jazarpena eta eraso sistematikoak egiten zaizkio denbora luzez, bakandu eta bakarrik sentiarazteko helburuarekin. Akosatzaileak biktima deuseztatu nahi du, baina nola lortzen du?

- Bere komunikatzeko ahalmena murriztuz.
- Bere ardurak neurri gabe jautsiz edo igoz.
- Bere lana edota bizi pertsonala etengabe kritikatu. Eta zehazkiago, hiru ezaugarri orokor hauek nola somatzen dira? Nola susmatzen ahal da mobbing kasu baten aitzinean gaudela?
- Pertsona hori modu erasokorran edo mehatxugarrian



Lantokian, akosatzaileak biktima deuseztatu nahi du, bere komunikatzeko ahalmena murriztuz edo etengabe kritikatu.

zuzentzen zaizu.

- Ez dizu informazio nahikorik ematen edo okerrekoa ematen dizu, zure emaitzak ez daitezen onak izan.
- Jartzen dizkizun helburuak sobera handiak dira, duzun denborarekin edo baliabideekin konparatuz.
- Ez dizu deustarako kontuan hartzen.
- Barregarri uzten dizu.
- Ez dizu betebeharririk ematen edo ematen dizkizunak zure ahalmenen azpitik daude.
- Zure lanari edo bizitza pertsonalari buruzko gezurrezko zurrumurruak zabaltzen ditu.
- Zure lankideekin solastea galarazten dizu.
- Ez dizu zure lana betetzeko baliabide nahikorik eskain-

tzen: ez dizu telefonoa, faxa, ordenagailua... erabiltzen zuten.

Eta zein ondorio ditu mobbing-ak?

- Beldurra.
 - Suminkortasuna.
 - Kontzentrazioan edo memorian gorabeherak.
 - Motibazioaren galera.
 - Depresioa.
 - Loaren nahastea.
 - Suizidio burutapenak.
 - Bertze eritasun fisikoak.
- Horregatik, akosatzaile hauek garaitzeko, mobbing-aren biktima zarela uste baduzu, zure eskubideei buruz informatu zaituzte.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak

SOLASALDIAK

BERA

Maiatzaren 13an, Toki-Ona Institutuan «Elkarbizitzaren mugak eta arauak. Ikasketak eta ordutegiak» solasaldia eskainiko du Txus Congil sikologoak 18:00etan. Toki-Onako Guraso Elkarrekin antolatua.

ETXALAR

Maiatzaren 20an, Kultur Etxean «Ardurak hartzeko komunikazioa eta hezkuntza» solasaldia eskainiko du Txus Congil sikologoak. Toki-Onako Guraso Elkarrekin antolatua.

BIDAIAK

LESAKA

Maiatzaren 16an, Lourdesera bidaiari antolatuko du San Fermin jubilatuen elkarteak. Izen ematea bazkideentzat maiatzaren 11 baino lehen (15 euro). Bazkide ez direnek maiatzaren 12an (18 euro).

IKASTAROAK

ETXALAR

Maiatzaren 12tik 23ra, Internet Ikastaroa Kultur Etxean. Nabegazioa eta informazio bilaketa, Outlook Express, bideo konferentzia eta txat. Iraupena: 25 ordu. Apuntatzeko: 948 635386.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Maiatzaren 5etik 11ra

Etxalar, Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga) eta Goizueta.

Maiatzaren 12tik 18ra

Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Irurita, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

Maiatzaren 19tik 25era

Lesaka (O. Altzate), Doneztebe (S. Larraioz), Elizondo (F. Garcia Mata), Mugairi eta Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA	Noiz: Maiatzak 9, ortzirala Orduetegi: Arratsko 22:30etan. Lekua: Kultur Etxean «Hitza eta Doinua» Egunkariaren alde <i>Euskal Herriko hainbat idazleek eta musikariek hitza eta doina partatu dute euskarazko egunkari berriaren alde.</i>
Noiz: Maiatzak 8, ortzeguna. Orduetegi: Arratsaldeko 20:30etan Lekua: Kultur etxean Zinekluba: Kamchatka <i>Argentinako diktaduraren garaiak haur baten begiradapean.</i>	Noiz: Maiatzak 17, larunbata Orduetegi: Arratsko 20:00etan Lekua: Kultur Etxean Escena dantza jaialdia: Carmen Roche-ren balleta <i>Espaniako ballet klasiko onenetakoak irakiko du aurtengo Escena jaialdia.</i>

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa iragarkia igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

ARIZKUN. Pisu moblezatua salgai. Trastero eta garajearekin. Sartzeko moduan. Egoera onean. ☎ 639 012 085

LEITZA. Herri zentzuan 90m² pisua salgai. ☎ 656 787 678

ETXALAR. Etxe unifamiliarra salgai. ☎ 670 410 581.

ELIZONDO. Braulio Iriarten pisua salgai. ☎ 943 260513.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisu ederra eta nahiko berria errentan emateko da. 100m²koa. Herriaren kanpoaldean, herrigunetik 500metrotara. Kafekazioarekin. ☎ 616 244 210

BERA. Agerran, Azkain 12, 3. esk. pisua errentan eman nahi da. ☎ 943 625 355

SUNBILLA. Herriatik 3km-ra etxea errentan emateko. Urte osorako. ☎ 948 393 070 - 608 672 106

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
 - Edozein herritan badugu zerbitu.
 - Leitza: terreno eta pisuak erosten dira.
- 948 451 841 / 607 978 656

ADOS

- Donezteben obra berriak. Santa Luzia plazanazken 2 apartamentu eta lokal komertzialak salgai.
 - Osasun Zentru ondoan pisu berriak salgai.
 - Aparan zonaldean pisu berriak eta azkeneko 3 partzela eraikigarriak salgai.
- 948 451 841

BERA. Pisu bat errentan hartuko genuke. ☎ 626 852937.

ETXEBIZITZAK

106 Bertzelakoak

BERA. Pisu konpartituko berrak pertsona bat edo biek. ☎ 948 631188 (Nerea)

BERA. Apartamentu edo pisu bat behar da norbaitekin konpartitzeko. ☎ 94-4004643 - 699 324 458 (Begoña)

GARAJE/LOKALAK

107 Salgai

ELIZONDO. Santiago kalean 200m²tako bajera sal-

gai. ☎ 607 978 656.

Lokala salgai. ☎ 670 410 581

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

Muskitz (Imotz bailaran) etxea egiteko 700m²ko lur eremua salgai. Iruñetik 20 minutura. ☎ 948 503 207 - 699 523 790

LANA

301 Eskaria

Emakume batek etxeko lanak egin edo jatetxe batean ontziak garbitzen lan eginen luke. ☎ 626 852937.

Emakume batek zerbitzari moduan lan eginen luke uztaile eta abuztuan. ☎ 650 772 171 (Ainhoa)

Emakume batek etxeko lanak egin edo jatetxe batean ontziak garbitzen lan eginen luke. ☎ 661 383 292

Emakume batek etxeko lanak egin, zaharrak eta umeak zaintzen edo jatetxe batean ontziak garbitzen lan eginen luke. ☎ 678 265 413

- 627 762 200

Emakume euskaldun batek goizez ordu batzuz lan eginen luke. ☎ 617 567 047

LANA

302 Eskaintzak

Tolosa eta Hondarribia. Udaltzaingorako 10 lanpostu iragarrita. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Suhiltzaileak. Lanean berehala hasteko, Euskal Herriko Parketan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezinhobeak. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Adoz. ☎ 948 199 596

Basozaina. Euskal Herriko Parke eta Natur-Erreseratan egin ezazu lan. Lanera altxatzeak etengabe. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Garraiolaria. Profesional bilakatzeko titulua lortzeko. Hedatzen ari den sektorea. Adoz ☎ 948 199 596

Osakidetzak. Laster deialdiak: erizain-laguntzaileak, ATS-DUE eta zaindaria.



ESKAILEREN FABRIKAZIOA eta KOLOKAZIOA

Material motak:

- Haritza
- Sapelly
- Iroko
- Elondo
- Pinua



Ventas Auzoa 27 (Landetxa) • 20305 IRUN
Tel: 943 628171 • Faxa: 943 632660 • e-mail: hoppe@euskalnet.net

L n l z Itz

SUHILTZ ILE K
L n n - h l h s t k .
L n - l m z z n k .
Esk k zur . Esk l
Cr u tu .

S Z IN
Eusk l l r k r k l
V tur-Err s r t r r
z zur . L n r b z k
t n . Esk k zur
Esk l Gr u tu .

U LTZ ING
r l k U l t x t n l r
t k . l k l s t r
Esk k zur . Esk l
Gr u tu .

MINIST I
L GUNTZ ILE K
r k U l l x l
Er kun l n l n .
l k l s t r . Esk k zur
Esk l Gr u tu .

GI .ESK L
l k \$ LE
ru-s r r k 1.5 ur
n uru . L n z n k
k l r .

r s t z t z . h k n f r m z .
1 5

Adoz ☎ 948 199 596

Aire kontrolatzaileak. Aire-portuak. AENAK eskainitako 250 lanpostu. Eskakizuna: ingelera maila ertaina. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Gida-eskola irakaslea. Diru-sarrerak: 1.500 euro inguru. Langabeziarik gabeko lanbidea. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Udaletxe, erakundeetan ofizio-funtzionario bezala egin ezazu lan. Eskola Graduatua edukita: harreragileak, lo-rezainak, txoferrak, atezainak... Presta zaitetz. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Liburutegi laguntzaileak. Udaletxe, agiritegi, dokumentazio-zentruetan... lanpostuak. Adoz: ☎ 948 199 596.

Administrariak. (Tekniko eta laguntzaileak). Bertako Udaletxe eta erakundeetan lana. Deialdiak laster. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Adoz. ☎ 948 199 596.

ETXALAR. Zerbitzari bat behar da jatetxean lan egiteko. ☎ 948 635 450.

Leitzaldeko enpresa batek **kamiolaria** behar du. ☎ 619 829289 (Cedema-Garalur).

Argin edo peoi bat behar da. Malerreka aldean lan egiteko. ☎ 948 451 843 (gaueko 9tik aintzin).

Behobiako merkataritza gunean zerbitzari bat behar da. ☎ 629 472 589

Azpeitia. Neska bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, astelehe-

JOISA

AROZTEGIA ERAIKUNTZA MEKANIKOAK MAKINA ERREMINTA

Barandak, balkoiak, hesiak, forja artistikoa...

ADU 16 Pol. Ind. LESAKA 31770 Nafarroa

Tel.-faxa: 948038150
Magj.: 646774117

netik ostralera, interna modura. Urteko 14 ordain, Segurtasun Soziala eta hilabete-ko oporrak. ☎ 600 767 075.

Ibardingo benta batean frantsesa dakien saltzailea bilatzen dugu. ☎ 948 630 175 - 609 480 646

Leitzako jatetxe batean sukaldeko laguntzaile bat behar da. ☎ 627 906 381

Ibardingo kantinean frantsesa dakien neska bat behar da astesburu eta udan lan egiko. ☎ 948 630 734

Ultzamako MAIER enpresak langileak behar ditu. ☎ 619 829 289

MOTORRA
501 Salerosketak
1997ko Fiat Bravo HGT.2.0 20v 147cv gorria salgai. 78.000km. Llanta eta faldoekin. ASD. Pioneer musika ekipoa. Egoera onean. ☎ 606 280 895

Derbi Senda 75cc motoa salgai. Estrarekin eta egoera onean. ☎ 948 510 723

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Terrano 5 atekoak, Clio D, Montero 3 atekoa, Opel Combo, Berlingo, Opel Midi, Suzuki Long Body
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

(arratsaldeko 7etatik aintzin)

Crisler Voyager salgai. NA 3872 AK. Egoera onean. ☎ 619 733 867

ANIMALIAK
602 Salgai
Aker ñañoak salgai. ☎ 679 419 321 (arratsaldeko 5etatik aintzin)

Behorra salgai, paseoan ibiltzekoa. ☎ 689 042598.

DENETARIK
701 Galdu-aurkituak
BERAko industrialdean giltza batzuk galdu ditut. 10-12 giltza zituen giltzarian. Aurkitzen dituenak saria izanen du. ☎ 948 635 166 - 689 702 891.
Seat markako **giltza** galdua. ☎ 686 733349.

Mendi-bizikleta emakumearena falta da martxotik. Orbea urdin eta zilar kolorekoa. ☎ 600 902631.

DENETARIK
702 Salerosketak
Musika ekipoa salgai. 2000w, etapa eta ekipoko kableekin. Berbena talde batena. Egoera oso onean. ☎ 649 83 99 22

Idazki makina salgai. Gutxi erabilia. ☎ 948 510 318

Mostradorea eta estanteria zur eta burniz eginak salgai. Erakuslihoetarako egokiak. ☎ 687 346 476 (Maite Labiano).

Inglesina markako **kapota**, silleta. taka-taka eta jaio berrindako hamaka egiten dena salgai. ☎ 667 675463.

DENETARIK
703 Bertzelakoak
Trikitixa erosiko nuke. Egoera onean egon dadila. ☎ 948 610 803 (eguerdi eta ilunabarretan).

BATXILERGOAK Aurre izen-ematea: Maiatzaren 2tik 9ra
LANBIDE HEZIKETA Aurre izen-ematea: Ekainaren 2tik 11ra

BATXILERGOAK:

- Teknologikoa
- Osasu eta Natur Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- Mekanizazioa
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- Mekanizatze Bidezko Ekoizpena
- Elektronika eta Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak

Hizkuntza ereduak: D (Euskeraz) eta A (gaztelera)

KALITATEZKO HEZKUNTZA

Euskadi

HETEL

Elizatxo Hiribidea, 14-16
20303 - IRUN
Tfa: 943 628 411
Faxa: 943 628 432
irungolasalle@ilsalle.org

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



ENEKO TELLETXEA IRAOLA igantziarrak 10 urte bete ditu apirilaren 24ean. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.



IRAIDE SA-GARDIA AMIANO gazteluarrak 11 urte bete ditu apirilaren 18an. Zorionak Erik anaiaren eta gurasoen partetik. Muxu pila pila.



ANDER MENDIBERRY ALE-MAN arizkundarrak urteak bete ditu maiatzaren 5ean. Zorionak Iloba Leiren partetik. Ea egiten duzun gasna-pastela.



ALFONSO REY MARTINEZ beratarrak 36 urte bete ditu apirilaren 23an. Zorionak familiaren partetik.



JULEN PALENZUELA ETXEPARE lesakarrak 6 urte bete ditu apirilaren 28an. Zorionak «porterista».



AINARA PALENZUELA ETXEPARE lesakarrak 3 urte beteko ditu maiatzaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat, «trasto».



JOSEBA GALINDO LEIZAK 4 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak ama, atta eta Naroaren partetik.



NAROA GALINDO LEIZAK 2 urte bete ditu apirilaren 23an. Muxu haundi bat Joseba, atta eta amaren partetik.



IKER TELLETXEA IGOA beratarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



PABLO ANSALAS beratarrak 68 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Zorionak andarearen eta alabaren partetik.



GAIZKA ORTEGA ALTZUOREN beratarrak maiatzaren 16an urtea beteko du. Zorionak familiaren eta bereziki Juleneren partetik. Muxuak.



MIKEL MINDEGIAK urteak beteko ditu apirilaren 26an. Aunitz urtez Lesakako kintoen partetik.



JUANA MARI MIGELTORENA MAIA lesakarrak urteak bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak Jonen partetik.



OIHAN CANABAL ETXARTE igantziarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 22an. Zorionaketa muxu haundi bat denen partetik.



JOSEBA PETRIRENA beratarrak 20 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak amatxi eta ataxiren partetik.



NAIARA DAGERRE beratarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 9an. Zorionak amatxi eta ataxiren partetik.



ITXASO ESTANOGA doneztebarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 22an. Zorionak eta bi muxu amatxi, Jexux, Edurne eta Ainhoaren partetik.

Espasa-Banesto Biblioteka Handia oparitzen dizugu



1.504 €ko balioa duten 12 liburu
Aurrekaririk gabeko bilduma

Informa zaituz: Tel. 948 630813 - Eztegarra 21 • BERA

 Banesto

MUEBLES METS



LARUNBAT
ERATSALDETAN
IREKIA

Sarrera
ERATIK DA

karrika,
Alkaiaga

789 LESAKA

948 630 537

948 631 443

BITATU GURE

WEB ORRIA

mueblesamets.com

okaldeak

gongelak

logelak

bainugelak

1000 m²

akusketa

ERA HANDIAK



*Antola ezazu
zure atsedena
nahi bezala*



**FUNTZIO ANITZEKO
AGINTE-TRESNA**

**MASAJI SISTEMAK
RODILLOEN
BIDEZ**

**SISTEMA MOTORIZATU
INDEPENDIENTEA**

**ZURE MASAJISTA
ETXETIK MUGITU GABE**

*Zatoz eta
proba ezazu!*

**VIBRO MASAJI
SISTEMA ESCLUSIBOA**

Gaupasa

LANDIBAR AUZOAN URDAZUBI- NAFARROA

Otordu handiak • Famili bilerak



Ugarana jatetxean

Kinto bestak • Koadrila afariak
Despedidak...



Kupela sagardotegian

Trago eta pintxo goxoak



Mikela ostatuan

*Etorri
probatu
eta gozatu*

**Erreserbak:
(0034) 948 599410**

Besta, saltsa eta dantza...



La Nuba diskotekan

